



AHOSKERA

25  
Euskara Zerbitzua  
Hizkuntza Prestakuntza





# AHOSKERA

Andres Alberdi

Ikasmaterialetako hizkuntzaren  
egokitasun-irizpideak finkatzeko  
Aholku Batzordea

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>.

Argitaraldia: 1.a, 2014ko urria  
Ale kopurua: 2.000 ale  
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila  
Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz  
Maketazioa: EkipoPO  
Inprimaketa: Gráficas Irudi  
ISBN: 978-84-457- 3353-0  
Lege-gordailua: VI 753-2014

## Sarrera

Urteak behar izan dira liburuxka hau begiz jo, lehen idazkera eman, eztabaidatu, adostu, ondu eta, dagozkion oniritziez, argitara emateko. Izango da bazterretan, seguru, hau baino arinago burututako lanik. Denbora eta atzera-aurrera horiek amaitu dira, ordea, eta kalera dator azkenik Andres Alberdiren *Ahoskera* liburuxka. Lan txikia da oraingo hau hedaduraz. Aldiz, zabala eta sakona dugu mamiz: zabala, sakona eta korapilatsua. Pragako zirkuluaren (bertako lerro baten: batez ere Mathesius-en eta Boruslav Havráněk-en) mendeko eta oinordeko gara funtsean, eta aparteko zirrara eragiten digu orain ere oinbiko gehienoi, arlote edo jantzi, letrazko hizkuntzak: batez ere estandarizatutako idazkera jasoak. Kosta egiten zaigu gogoratzea, behar baino gehiagotan, hitzezko komunikazio-ekintza dela mintzoa. Hala dela jatorriz eta hala dugula orain ere, nagusiki, solaskideon eguneroko jardunean. Ahozko jardun horrek ere bere arauak (arau multzo bihurriak, aski kontestualizatuak) ditu. Kontestu horietariko batean, eskolan, berezko-edo dute hiztun-elkarte garatuek hartarako ahoskera molde bateratu antzeko bat. Ikasleei ezagutza formalak transmititzeko orduan lagungarri gertatu ohi da, eragozpen baino gehiago, irakasle gehienek ahoskera landu moduko horretan jardutea. Sarri baliatzen dira ahoskera landu horretaz, modu erreferentzialean besterik ez bada ere, han-hemengo irakasleak eta, adin batetik gora, ikasleak.

Perspektiba historikotik begiratuta gertakari berri samarra da, bestalde, euskal eskola: hots, euskarazko irakaskuntza formal, arautu, luze-zabalekoa. Egia da euskarazko ikaste-irakaste formal horren aurrekariak askotxo direla: askotxo eta askotarikoak. Harritu ere egingo ginateke inoiz, dotrina-kontuen eta beste zenbait irakasgairen mendez mendeko trataera eskolarra hurbiletik arakaturaz gero. Besterik da, ordea, joera nagusia: erdaraz jaso izan ditugu euskaldunok, mende joanetan, eskola-ezagutza gehienak. Latinez, gaztelaniaz edo frantsesez ikasi eta irakatsi izan da, nagusiki, gure eskoletan. Alde horretatik, berrikuntza ohargarria da azken (demagun, iturri urrunagoetara hegaldatu gabe) 50 urteotako euskal eskola. Euskaraz transmititzen ditu eskola “berri” honek, partez edo osoz, bertako gaiak. Transmisio-lan horrek corpus-plangintza eskatu du, jakina

denez: ortografia batu bat definitu, ezagutarazi eta ikasmaterialetan zein hiztegieta finkatzea; euskal hitz-altxor zahar bezain zatikatua bateratzea; eskola-gaiek berez eskatu ohi duten terminologia teknikoa lantzea eta zehaztea; euskal aditzean eta deklinabidean, orobat morfosintaxiaren beste zenbait esparrutan, guztiontzako baliagarri izango diren paradigmak xehatu eta adostea... Lan handia egin da horretan guztian, 1964tik hona: Arantzazuko biltzarra, Euskaltzaindiak 1968an egina, corpus-plangintza horren mugari nagusi da alde askotatik.

Idatzizko jarduna arautu nahi izan zen, nagusiki, Arantzazun. Hala egin izan da gero ere, Arantzazu ondoan. Ahozko jardunari beti aitortu zaio aparteko garrantzia, batean zein bestean. Arautze-saio hori eragozpen eta buruhauste handien iturri gertatu izan da, ordea, sarri. Bistan da zergatik. Inon hizkeraren aniztasuna argi eta zorrotz nabarmentzen bada, ahozko jardunean gertatzen da hori. Idatzizkoa baino zailagoa da hitzezkoa, zenbait motiborengatik, arautze-lanari dagokionez. Nola arautu konturik bihurriena, zatikatuena, aldakortasun-iturri gehienen mendeko duguna? Nola eta zertarako bateratu jardun-guneak eta rol-harremanak, formaltasun-mailak eta estilo kontuak hain gogor erasandako mintza-esparru espontaneoak? Nola arautu hori airoski, argi eta zehatz, euskaldun-jendea Prokrustes-en ohatze lazgarrian etzanarazi gabe? Ez da auzi-gai makala: noraino komeni zaigu ororentzako mintza-eredu bat diseinatzea, adostea eta zabaltzea, zabalkunde-saio horrek lekuan lekuko hiztun bizien jarduna moteldu, makaldu, gatz-piper gabetu eta, kasurik larrietan, solasbide lasai-gozorako ezindu egingo badigu? Euskararen ederra dugu amets, ala euskaldunen mintzo zalua, bizia, doia eta ugaria? Ez al diogu hori baino begirune handiagoa zor goizean goiz ohetik jaiki orduko “bere betiko moduan” mintzo den hiztun horri, nahiz eta mintzamolde horrek lekuan lekuko, aldiari aldiko eta norbanako hiztunaren berezko aldakortasun-markak bekokian iltzaturik eraman?

Eztabaida zaharrak ditugu hauek. Zaharrak eta garrantzizkoak. Arriskuak eta eragozpen-mugak hor egonik ere, ahozko jardunaren plano formaleko (kasu honetan, eskola-giroko) ezaugarri basikoak definitzen saiatzea, batez ere erdararen morrontza nabarmeneko ezaugarri deigarrienei ihes egiteko lagungarria, ez da ezinbestean eguneroko

mintzaera arruntaren traba eta enbarazu, zenbait eginkizunetarako erreferentzia sendoa baizik. Azken xede horri erantzun nahirik erabaki zuen Sailak, aurreko zortzi kasuetan bezala, hezkuntza-esparruko hainbat profesionalentzako orientabide bat landu, ahal den heinean adostu eta, gutxieneko onespren-agiria jasotakoan, kaleratzea. Horixe duzu, hain zuzen, esku artean duzun liburuxka.

Eskerrak eman nahi dizkiot, hitzaurre honen amaiera aldean, langintza horretan hainbat urte xahutu duen eta hainbateko eroapena agertu digun Andres Alberdi irakasleari. Ikasmaterialen hizkuntzazko egokitasun-azterketan diharduten adituen koordinatzaile izanik da Andres, urte luzez, eta maisukiro eginik du esparru horretako lana. Handia izanik ere eginbehar zabal horretan utzi duen uzta, ez da oraingo hau, beharbada, bere ekarpenetan txikiena. Eskerrik asko, Andres, bihotz-bihotzetik. Eskerrak eman nahi dizkiet argitalpen hau ontzen, aberasten eta doitzen lagundu duten profesional guztiei. Eta eskerrak azkenik, baina ez azken, Euskaltzaindiari: bai lana hobetzeko hainbat iradokizun egin duen batzordeari eta bai, nola ez, Zuzendaritzari berari, oniritzia eman diolako liburuki honi. Pausoka egiten da bidea. Hona urrats berria. On dagizula, irakurle!

Azken bi ohar, hala ere:

Jakizu, irakurle, zernahi dela ere, zure ekarpen baliotsuak jasotzeko prest gauzkazula noiznahi helbide honetan: [huisseus@ej-gv.es](mailto:huisseus@ej-gv.es)

Jakizu, era berean, liburuxka hau eta EIMAren Estilo Liburuko beste liburuxkak Interneteko webgune honetan dituzula digitalizaturik: [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu\\_5490/estilo\\_liburua\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/estilo_liburua_e.html).

*Gasteizen, 2014ko uztailearen 30ean*

**BEGOÑA GARAMENDI IBARRA**  
**Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria**





# Aurkibidea

<b>Atarikoak</b> .....	9
<b>Eskertza</b> .....	13
<b>1. Euskara batuaren ahoskera zaindua</b> .....	15
<b>1.1. Bokalak</b> .....	15
<b>1.2. Bokal-bilkurak</b> .....	16
1.2.1. Diptongoak eta hiatoak .....	16
1.2.2. Hitz batetik besterako bokal-loturak .....	18
1.2.3. <h> ahoskatzen ez den hizkeretan .....	19
<b>1.3. Kontsonanteak</b> .....	19
1.3.1. <g> letra .....	19
1.3.2. <s, z>, <ts, tz> .....	20
1.3.3. <b, g, r, d> .....	20
1.3.4. <r, rr> .....	21
1.3.5. <h> .....	21
1.3.6. <il, in> bustidurak.....	22
1.3.7. <j> .....	22
1.3.8. <x> .....	24
1.3.9. <w> .....	24
<b>1.4. Kontsonante-bilkurak</b> .....	25
1.4.1. <i>Bai(t)-</i> .....	25
1.4.2. <i>Ez</i> .....	25
1.4.3. <n, l, r> + <z>.....	26
1.4.4. <t, k> + <b, d, g>.....	27
1.4.5. <n + n> / <l + l> .....	28
1.4.6. <-t(z)en + bokala>.....	28
1.4.7. <i>eta</i> .....	29
1.4.8. <i>bada</i> (lokailua) > <i>ba</i> .....	29
1.4.9. <i>-(e)z gero</i> 30	

1.5. Mailegu berriak: ahoskera eta idazkera.....	30
1.6. Exonimoak (kanpoko izen bereziak): ahoskera eta idazkera .....	33
<b>2. Euskal prosodia .....</b>	<b>37</b>
2.1. Esaldien erritmoa .....	38
2.1.1. Silabaren nagusitasuna.....	38
2.1.2. Sekuentzia-banaketa.....	38
2.1.2.1. Etenik gabe ematekoak diren sekuentziak.....	38
2.1.2.2. Etenez ematekoak.....	39
2.2. Esaldien intonazioa.....	42
2.2.1. Perpaus moten araberrako intonazioa .....	42
2.2.2. Mintzagai-galdegaiak.....	45
2.3. Azentua .....	46
2.3.1. Sarrera-oharrak .....	46
2.3.2. Euskal azentuaren ezaugarri zenbait .....	49
2.3.2.1 Ezaugarri orokor batzuk .....	49
2.3.2.2. Proposetzen den jarraibidearen (+2) aplikazioa .....	52
2.3.2.3. Deikiaren azentua .....	55
2.3.3. Bereziki zaindu beharreko ahoskera-alorrak .....	55
2.3.3.1. Izen bereziak.....	56
2.3.3.2. Hiru silabatik gorako zenbait alor.....	59
2.3.3.2.1. Zenbakiak.....	59
2.3.3.2.2. Azentu-unitate modura eman beharrekoak.....	59
2.3.3.2.3. Erdaratiko maileguak .....	59
2.3.3.3. Izenordainen genitiboak .....	59
2.3.3.4. Ba- .....	60
2.3.3.5. Aditza .....	60
2.3.3.6. Hitz elkartuak eta haien gisakoak .....	61

## Atarikoak

*Ahoskera* izena eman diogu liburuki honi, baina *prosodia* ere deitu geniezaiokeen; izan ere, kontsonanteen eta bokalen ahoskera-kontuez gainera, ahoskeraren oinarri den prosodiaz<sup>1</sup> ere gutxieneko batzuk markatu nahi ditu. Beste modu batera esanda, hizkuntzaren eta hizketaren –buruaren eta ahotsaren– arteko mugetan sortzen den lehian, oreka-puntu batzuk zedarritu eta argitu nahi ditu.

Auzia ez da berria euskararen baitan, denok dakigunez. Aski da, esate baterako, euskara batuaren hastapenetan Koldo Mitxelena idatzitako hitz hauek gogora ekartzea: «Esaten dena nola idatzi behar den jakiteak badu bere axola. Are gehiago, ordea, egun eta gure artean, irakurtzerakoan ikusten dena nola ebaki behar den irakasteak»<sup>2</sup>.

Arazoak bere horretan jarraitzen du gutxi-asko, areagotu ez bada azken urteotan. Izan ere, denok aitortzen dugunez, idatziak eragin handia izan du ahoskeran azken urteotan. Ezin bestela izan, gainera. Ezinbestean, euskarazko eskolek eta euskara estandarrak elkarrekin egin dute bidea, eta ez da astirik eta modurik izan ahoskera berariaz lantzeko.

Hala, ahoskerari buruzko araurik ezean, gehienetan letrak izan ditugu gogoan eta nagusi, eta ez dugu aukerarik izan hotsei duten garrantzia emateko. Ondorioz, ohitura badaezpadakoak ere hartu ditugu: esate baterako, letraz letra irakurtzera eta irakastera jo da eskola-ikastoletan eta, euskara idatziaren aitzakian, uko egin zaie sarritan euskalkietako sistema prosodikoei. Bistakoa da ordaina: erdararen interferentzia dela-eta (baina ez horrexegatik bakarrik), haren mendeko ereduak joan zaizkigu nagusituz: bai ahoskeran (<pro[θ]esu>, esaterako), bai azentueran, bai doinueran.

---

<sup>1</sup>Prosodia da: hitzak ahots bihurtzean, hotsak denboran erritmikoki uztartzeko erabiltzen dugun *musika*; bestela esanda, hitz egitean gertatzen diren doinu-gorabeherak (altuera, maiztasuna), erritmo-unitateak (silaba edo silaba multzoak), nabarmentzeguneak (indar- edo altuera-azentua), hotsen iraupena eta abar aztertzen dituen gramatika-atala.

<sup>2</sup>K. Mitxelena, MEIG VII, 27. zk., 184. or.

Duela zenbait urte, ahoskera estandarra finkatzeko arauak<sup>3</sup> eman zituen Euskaltzaindiak, eta horietatik abiatu beharra daukagu Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuko EIMAn (Euskal Ikasmaterialgintza Programan). Euskaltzaindiaren arau horiek, ordea, bokalen eta kontsonanteen ahoskerari dagozkionak dira, eta, erraz ulertzekoa denez, ez dira aski hizketa naturalera hurbiltzeko. Irakasmaterialgintzaren premiek eta irakasleen eguneroko eskola-jarduneko premiek harantzago joatea eskatzen dute, erabaki zenbait behin-behinekoak izanda ere. Ahoskerari gagozkiola, ezin egon gaitezke denbora luzeagoan zain erabaki ofizial behin betikoak noiz hartuko, bitartean erdararen moldeek gaina hartzen digutela.

Dozenaka dira EIMARA urtean-urtean aurkezten diren lanak, eta gero eta gehiago dira ikus-entzunezkoak (bideoak, CDak, DVDak, multimedia-materialak...). Arau-gomendio eta argibide zehatzagoak behar dituzte onespenez-aztertzaileek, argialetxeetako hizkuntza-arduradunek eta bikoiztaileek halakoak gainbegiratzeko edota ekoizteko. Gauza bertsua gertatzen zaie irakasleei ere eguneroko eskola-praktikan beren jardunaren nondik norakoa finkatzeko: prosodiaren inguruko gutxieneko helduleku teoriko batzuen jabe izatea. Jardun horiek bideratzea da liburuxka honen helburua<sup>4</sup>.

Hemen markatzen diren aholkuak, nolana ere, ez datoz ezer ordezkatzera, osagarri izatera baizik. Eskolan eta eskola-irakasmaterialetan *hizkera zainduan* (maila jasoan, alegia) *egoki jarduteko proposamenak dira*, eta *euskarak berezko ez dituen ohituretatik gordetzeko oharra*, bide batez.

Eremu eta molde jakin bati lotuak daude, beraz: eskolako irakasleen azalpenetarako, eskolako irakurketa-saioetarako eta ikasmaterialen

---

<sup>3</sup>87. araua: *Euskara batuaren ahoskera zaindua* (EBAZ), 1998-06-26koa. Euskaltzaindiaren arauak bokal-kontsonantei buruz bakarrik eta ez prosodiari buruz izatea berariazko hautua izan zen. 1998ko *Euskera* aldizkariko Miren Lourdes Oñederraren “Ahoskera Lantaldearen Errendapen Txostena” eta “Prosodiaren oraina eta ahoskera-arauak” artikuluetan ageri dira erabakiaren arrazoiak, eta bertan adierazten dira gauzak estuago lotu ez izanaren argudioak.

<sup>4</sup>Pretentsio handiegia litzateke hizkera estandarren erabateko ahoskera finkatu nahi izatea. Zalantza ere eragiten du gaur-gaurkoz egingarria ote den.

grabazioetarako. Hau da, eskola-esparruan hizkera zaindua erabili behar denerako, inguruko eta irakaslearen ahoskera biziari kalte egin gabe haren osagarri izateko asmoz.

Izan ere, badira beste eremu eta molde egoki batzuk ere: euskalki-eta azpieuskalki-eremua, lagunarteko hizkera, familiakoa, haurrena... Eta hizkera eta hizketa molde arrunt horiek bestelako ohiturak eta koloreak dituzte, eta aitzakiarik gabeak dira, baldin eta hizketa jakin hori ongi egokitzen bada gertatzen den egoerara, edukira eta solaskideen ezaugarrietara; hau da, dagoen testuinguruan naturala eta sinesgarria baldin bada<sup>5</sup>. Esan nahi baita erregistro-aniztasunean dagoela joko. Hartara, hizketa berez malgua denez, testuinguruak aginduko du <etxea> [etxea] ala [etxia] esan behar den, <zahar> [za.(h)ar] ala [zar], <dago> [dago] ala [dao], <Zenbat da?> [zenbat-da?] ala [zenbada?]. Lehen aukerak dira hor egokiak ahoskera zaindurako; bigarrenak ere egoki-egokiak dira, ordea, beste erregistro batzuetan. Ez bedi ulertu, beraz, jaso edo zaindua dela zuzen bakarra, eta komunzki egiten diren erabilera libre edo zaindugabeak halamoduzkoak<sup>6</sup>.

---

<sup>5</sup>Besteak beste, malgutasun faltak dituen bi ezaugarri saihestuko dira horrela: artifizialtasuna eta pedanteria.

<sup>6</sup>Erregistro-kontuan dago gakoa. Konkretatzen hasita, hiru erregistro hauek behintzat bereizi beharko genituzke: a) erregistro formal jaso, b) erdi-mailako edo formal neutroa, eta c) eguneroko lagunarteko edota familiako erregistro arrunt edota arduragabea. Hala, dokumental didaktiko eta gisakoetan, hizkera zaindu-jasoko ahoskera erabiliko da, baina ahaztu gabe ahozko testu-tipologia ez dela molde horretakoetara bakarrik errenditzen. Esate baterako, eskola-antzerkiko testu bat bada, ez da dokumental batean bezain zorrotz hartu beharko ahoskera-araua, molde hori gertuago dago-eta hizkera-maila arrunt edo lagunartekotik. Nolanahi ere, izan kontuan, ahoskera dialektalera jo nahi izanez gero ere, gutxieneko koherentziaz egin beharko dela. Ez da berezkoa eta naturala ahoskera moldeak nahastea, hala nola etxeko hizkeraz hastea hitz egiten, gero batuan jarraitzea, noizbehinka bestelako moldeak erabiltzea, eta abar, non eta aldaketoi zentzu berezi bat ematen ez zaien, hala nola pertsonaiak hizkeraz ezaugarritzea (Agurtzane Elorduiren zuzeneko ekarpena).

Modu berean, esplizituki gogorarazi behar da eskolako ahoskera jantzia eta tokian tokiko ahozkoaren ezaugarriak desberdinak direla, eta hemengo esanak ez direla aplikagarri bere horretan eta beti-bateko, esate baterako, Donibane Lohizuneko, Gernikako, Gipuzkoako Getariako, Tuterako edota Guardiako hiru urteko haurren ikasgeletan.

Monoestilismoaren arriskuaz ohartaraztea ere ez da alferrikakoa, hizkera-maila bakoitzak bere ezaugarriak baititu, eta bakoitzari berea eman behar baitzaio. Hizkera jasorako gure arau-aholkuak erreferentzia teoriko modura ulertu behar dira, beraz, euskalkien aniztasunaren azpian dauden alderdi batzaileak biltzen dituztelako ustean. Gainerako erabileretarako eredu eta ispilu izan litezke, baina erregistroaren neurria galdu gabe aplikatuz gero<sup>7</sup>.

Liburukia bi atal nagusitan egituratu da:

–*Euskara batuaren ahoskera zaindua* atalak Euskaltzaindiak emaniko arauak tratatzen ditu, eta zenbaitetan haiek zabaltzen eta sakontzen ditu, aholku berri batzuen bidez.

–*Euskal prosodia* atalak euskal prosodiaren hiru adar nagusien nondik norakoa lerratzen du –erritmoa, intonazioa eta azentua–, eta, horretarako, hiru alor hauek hausnartzen ditu:

- ekarpen teoriko labur bat
- proposamen didaktiko batzuk
- euskarak berezko ez dituen ohitura jakin batzuetatik begiratzeko oharrak

Azentuarena da alorrik arazotsuena ziurrenera. Hargatik, berariazko sarrera-ohar batzuk egin dizkiogu berezkitasun horri begira (2.3.1. atala).

### **Azken oharrak:**

1. Adibideak sailkatzeko erabilitako zeinuen esanahia honako hau da:
  - (\*) Arauz okerra den forma: [\*Elgo.ibar] / [Elgoibar]
  - (?) Arauz zalantzakoa den forma: [?eskerrikasko] / [es.ke.ri.kas.ko]
2. Liburuxka hau entzun-jardunezko euskarriaren faltan da; audio-materialaren faltan, alegia. Ea modua egiten dugun hura atondu eta zorra al bait azkarren kitatzeko.

---

<sup>7</sup>Miren Lourdes Oñederra, “Ahoskera araupetzeaz” eta Pilartxo Etxeberria, “Hizkera jasoaren ingurukoak” in *Euskera* 39, 1994, 3:

## Eskertza

Luze jo du liburuki hau egiteak –sei urtetik gora, zehatz esanda–, eta bidean zorrak egin ditugu. Birmoldatze-, berritze-, zuzentze- eta osatze-lan asko gertatu da ibilian, eta jende askoren ekarpenak islatu dira bertan.

Zorretan gaude, lehenik, ETB sortu berritako hilabeteetan eta gerokoetan hasierako ahoskera-irizpideak finkatu zituztenekin (Xabier Mendiguren B., Joxe Ramon Zubimendi, M. Lourdes Oñederra...); eta zorretan, egungo ETBko euskara-arduradunekin, inolako eragozpenik gabe, eskura jarri baitizkigute barne-erabilerarako adosturik dauzkaten ahoskera-arauak. Arrunt probetxuzkoak gertatu zaizkigu zinez.

Zor handiagoa dugu Ikasmaterialen Aholku Batzordeko kideekin (Juan Garzia Garmendia, Xabier Mendiguren Bereziartu eta Joxe Ramon Zubimendi). Egile baten izena ageri da liburukian, baina ezin eskertuzko laguntza izan da haiena, lana goitik behera miatu eta kritikatzear gainera, iruzkinak egin eta hobekuntza erabakigarriak proposatu baitituzte.

Estimatzekoa da, era berean, hainbat ohar, iradokizun eta zuzenketa-proposamen zorrotz egin dituzten pertsona hauen ekarpena ere:

Alfontso Mujika (Elhuyar Hizkuntza Zerbitzuak)

Angel Ugarteburu (institutuko irakaslea eta euskarazko ikasmaterial-egilea)

Arantza Mariskal (Euskal Herriko Bertsozale Elkarte)

Asier Larrinaga eta lankideak (ETB)

Gotzon Egia (Gipuzkoako Diputazioa)

Helena Baraibar (EHIK- Ikastolen Elkarte)

Ibon Olaziregi (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Euskara Zerbitzua)

Idoia Ibero (Iraileko irakaslea)

Igor Odriozola (ingeniaria - Aholab)

Inma Hernaez (EHU- Aholab)



Iñaki Beristain (Arantzazuko fraidea)  
Iñaki Gaminde (EHU)  
Iñaki Zubizarreta (Mixer - Irusoin)  
Irene Arrarats (BERRIA egunkaria)  
Jacinto Iturbe (EHU)  
Jesus Eguzkitza *Eguzki* (Mixer - Edertrack)  
Jose Ignacio Hualde (Illinoiseko Unibertsitatea)  
Jose Ignazio Ansorena *Piter* (musikaria eta pailazoa)  
Josu Pikabea (institutuko irakaslea)  
Joxe Mari Berasategi (Arabako Diputazioa)  
Joxemiel Odriozola *Pana* (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta  
Kultura Saileko Euskara Zerbitzua)  
Juankar Hernandez (EIMA)  
Kepa Mujika (Hezkuntzako ikuskaria)  
Markos Balentziaga (institutuko irakaslea eta euskarazko  
ikasmaterial-egilea)  
Martin Rezola Clemente (Kultura Saileko itzultzailea)  
Miren Lourdes Oñederra (EHU, euskaltzaina)  
Pako Eizagirre (Iraileko irakaslea)  
Pello Zabala (Arantzazuko fraidea eta eguraldi-aditua)  
Pilartxo Etxeberria (EHU)

Azkenik, Euskaltzaindiko Ahoskera batzordeko kideei ere –Miren Lourdes Oñederra, Pilartxo Etxeberria, Oroitz Jauregi, Agurtzane Elordui, Irantzu Epelde eta Jasone Salaberria– berariaz agertu behar zaie gure esker ona, egindako oharrengatik. Azken erabakien erantzukizuna gurea da, noski.

Eskerrik asko denei.

Andres Alberdi

# 1. Euskara batuaren ahoskera zaindua

Gorago esan bezala, badugu hotsak ahoskatzeko eredua, Euskaltzaindiak emana (EBAZ, 87. araua). Araudi horri atxiki behar gatzazkio eskola-materialetan. Arau horietatik abiatuz, egokia da eguneroko jardunean sumatu ditugun kontu batzuei erreparatzea.

## Arau orokor bat dago oinarrian:

Hots guztiak ahoskatu behar dira –<horiek> [\*hoiek], <zuek ere> [\*zuek'e]...<sup>8</sup>–, eta idatzita bezala esan behar dira, hotsak aldatu gabe: <laster> [\*laixter], <otso> [\*otzo, \*otxo]<sup>9</sup>.

Salbuespen nagusi bakarra <h> letraren ahoskera da. Oro har, ez da ahoskatzen; Iparraldeko zenbait hiztunek, hala ere, idatzi bezala ahoskatzen dute.

## 1.1. Bokalak

Idatzi bezala ahoskatu behar dira bost bokalak. Ipar-ekialdeko euskaretan, <u> bokalaren [ü] ahoskera ere onartzen da.

---

<sup>8</sup>Adibideetan, bereizi beharrez, ortografia arrunta erabili da transkripzio fonetikoaren ordez ([yateko], adibidez), eta, kasu horretan, parentesi karratuak esan nahi du tartean dagoena ahoskera dela eta ez hitzen idazkera estandarra.

Nazioarteko alfabeto fonetiko erabili da, ordea, ortografikoa anbiguo gerta zitekeenean, eta, orduan, parentesi karratua eta ikurra molde lodiz erabili dira: [x] ikurra, igurzkari belarra adierazteko (gazt. *jamón* hitzaren lehen kontsonantea; [ʒ], sabaiaurreko ahostuna adierazteko (fr. *jambon* edo Lekeitioko [ogiʒa]; eta [θ], hortzartekoa dela adierazteko (gazt. *zapato*).

Letren eta hitzen aipamena egiteko, <> ikurra erabili da.

<sup>9</sup>Euskaldun askok ezin dute <ts> hori egoki ahoskatu. Hala gertatzen denean, egokiagoa da <tz> ahoskatzea [otzo, irakatzi...] <tx> baino [\*otxo, \*irakatxi...].

## 1.2. Bokal-bilkurak

Idatzi bezala ahoskatu behar dira hizkera zainduan:

<etxea> [et**x**ea], <astoa> [ast**o**a], <geroago> [ger**o**ago]<sup>10</sup>

### 1.2.1. Diptongoak eta hiatoak

**Beheranzko diptongoak** <ai, ei, oi, au, eu, ui> silaba batean eman behar dira:

ai.ta, sei.garren, ba.loi, gau.za, eus.kara...  
neu.rr*i*, neur.titz, neur.tu, neu.rona, eu.ro, feu.do, leun.tasun<sup>11</sup>...  
aurrei.kusi, aurrei.ritzi...  
Buztin.dui, Hui.tzi, Sui.tza, hi.guin(garri), zirkui.tu

Ez dute, beraz, tokirik bi silabatan emandako honelako ahoskerek:

\*go.izeko / goi.izeko, \*ana.itasun / anai.tasun, \*higu.in / higuin,  
\*mu.in / muin, \*fru.itu / frui.tu, \*za.indu / zain.d<sup>u</sup>, \*ga.itu / gai.tu...  
\*Ata.un / Ataun, \*Elgo.ibar / Elgoibar, \*Beasa.ín / Beasain, \*Zara.utz / Zarautz...  
\*Su.itza / Suitza...

**Goranzko diptongo desegokiak** <ia, ie, io, ua, ue, iu>, saihestu egin behar dira, eta bi silabatan eman, hiatoak dira eta<sup>12</sup>. Honela, hain zuzen:

abi.an, sozi.al, zi.ur, pazi.entzi.a, amorr*azi*.o, i.az (≠ jazz), Itali.a,  
Garmendi.a, Ezki.o, Herni.o...

(esan) di.o, di.ogu, geni.on...

<Ermu.an gertatu zen.> [\*er.mu.an]

<Sebasti.an etorri da.> [\*sebas.tian]

<Mundi.al bizi gara gu!> [\*mun.dial]

\*pinguino / pingui.no

<sup>10</sup>Hizkera-maila ez-zainduan, onargarriak dira, jakina, honelakoak: [et**x**ia], [telefon**u**a], [mend**i**yan], [og**i**xa]...

<sup>11</sup>Hizkeren arabera, hiato ere izan daitezke: le.un, ne.urtu...

<sup>12</sup>Arau orokorra hori izanik ere, ekialdeko euskalkietako hitzunenengan hizkera zaindutat hartzen da horietan diptongoa egitea; izan ere, bestela, esaldien doinua, hizketa-*tempoa*, erritmoa, azentua, silaba-egitura eta bestelako ezaugarriak aldaraziko litzaizkieke.

Erdal maileguetan gertatzen da batez ere arazoa (<ia> eta <io> bilkurekin bereziki). Erdal jatorriko hitzak izan arren, euskarak bereganaturik dituenetz, euskal hitz oso-osoak dira, eta bi silabatan ematekoak dira ([i.a] eta [i.o]), eta ez goranzko diptongo modura ([ja] eta [jo]):

- \*sozial / sozi.al
- \*komertzial / komertzi.al
- \*Julianek (esan) / Juli.anek (esan)
- \*anbulantzia / ambulantzi.a
- \*norvegiar / norvegi.ar
- \*Frantzia / Frantzi.a
- \*material / materi.al
- \*justizia / justizi.a
  
- \*na.zio.nal / nazi.onal
- \*soziologia / sozi.ologi.a
- \*kolegio / kolegi.o
- \*bizio / bizi.o
- \*kondizio / kondizi.o
- \*ioi / ioi
- \*anioi / ani.oi
- \*milioi / mi.li.oi
  
- \*dieta / di.eta
- \*pazientzia / pazi.entzi.a
  
- \*diuretiko / di.uretiko
- \*o.fiu.ra > ofi.ura

Badira zalantza eragiten duten bokal-bilkura batzuk. Hizkera-maila zaindugabeetan silaba bakarrez ahoskatzen direlako sortzen da zalantza; nolana ere, hizkera-maila zainduetarako hiatoa (bokal bakoitza silaba batean) ahoskatzea hobetsi behar genuke horietan ere. Hala gertatzen da, besteak beste, euskal jatorriko zenbait hitz arruntetan<sup>13</sup>:

egu.erd*i*, egu.arte<sup>14</sup>, egu.antz, egu.azten, egu.en, negu.alde, negu.aldi, esku.alde, esku.are, esku.aldi, esku.antze, esku.arki...

<sup>13</sup>Arauk arau, ordea, <goazen> (ia) beti bi silabatan ahoskatzen da; goranzko diptongoa egiten da, alegia: [gwa.zen].

<sup>14</sup>Ahoskera zaindian letra guztiak ahoskatu behar direnez, <eguraldi> moduko hitzetan, [e.gu.ral.di] da ahoskera onargarri bakarra (\*[egwaldi, \*egu.aldi]).

Nolanahi ere, arau ezin da estu-estu hartu, salbuespenak ugari dira eta maileguetan:

–Hitz integratuetan: **guard**asola, **guard**ia, **guar**aniera, **jaguar**, nikarag**uar**, pirag**ua**, ag**ua**ntatu, **guard**iar (Arabako **Guardi**akoa), esk**ua**dra, esk**ua**droi, **kuota**, sekuoia...

–Hizkera espezializatuetako terminoetan: **kuantu**, **kuartzo**, **quark**...

Euskal izen berezietan, euskararen ahoskera berezkoari lotu behar gintzaizkioke, eta hiatora jo, diptongoa saihestuta<sup>15</sup>:

Ordiz**ia**, Mallab**ia**, Muru**eta**, Ermu**a**, Gizaburu**aga**, Laku**a**, Ori**o**, Deri**o**...

Azpiliku**eta**, Antsu**ategi**, Arri**eta**, Gorosti**aga**, Garmendi**a**, Zubeldi**a**, Aizpuru**a**, Azku**e**...

### 1.2.2. *Hitz batetik besterako bokal-loturak*

**Arau orokorra: bokal bakoitzari silaba bat dagokio.**

–Bokal bera denean:

<neska alaia> [neska.alaia]

<ezkerreko ordezkaria> [ezkerreko.ordezkaria]

Dena dela, azentu-unitate direnean –eta halaxe gertatzen da hitz-  
elkarketa denean–, ez da debeku sinalefa egitea:

<ama-alabak> [amalabak]

<aitona-amonak> [aitonamonak]

<neba-arrebak> [nebarrebak]

–Bokal desberdinak direnean:

<nire ondoan> [nire.ondoan]

<zure iritzia> [zure.iritzia]

---

<sup>15</sup>Besteren hizkuntza-ohiturak (ikus 2.3.3.1. atala) mende askoan izan dira nagusi gure artean, eta ondorioz, molde honetako izen asko erdal moldean ere *normalizat* hartzen ditugu. Hala ere, bereiztera jo behar genuke.

-Tartean <h> grafema denean:

<tresna haiek/horiek> [tresna.(h)aiék/(h)oriek]

### 1.2.3. <b> *ahoskatzen ez den bizkeretan*

-Bokal bakoitza silaba batean ematen da ahoskera zainduan<sup>16</sup>:

a.ho, be.hartu, ze.har...

bi.hurtu, bi.har, u.hal...

za.har, be.he, le.hen, mi.hi, zu.hur, o.hore, i.hi...

-Bereziki erne ibili beharko da, beraz, honelako hitzekin eta gisakoekin ahoskera zainduan:

<behi> [be.(h)i], eta ez [\*bei]

<nahi> [na.(h)i], eta ez [\*nai]

<ohitura> [o.(h)i.tura], eta ez [\*oi.tura]

<ehun> [e.(h)un], eta ez [\*eun],

<nahiago> [na.(h)i.a.go], eta ez [\*nayago]

<gehiago> [ge.(h)i.a.go], eta ez [\*geyago],

<gehiagi> [ge.(h)i.e.gi], eta ez [\*geyegi]

<ahizpa> [a.(h)iz.pa], eta ez [\*aiz.pa]

## 1.3. Kontsonanteak

**Oro har, arauz, idatzi bezala ahoskatu behar dira.**

Aipa ditzagun ñabardura batzuk, nolanahi ere.

### 1.3.1. <g> *letra*

[g] ahoskatu behar da euskara zainduan, hala nola [geologia], [genetika], [pedagogia], [ingeniaritza]...

<sup>16</sup>Jakina, gainerako hizkera-mailetan diptongoa egitea zilegi da.

Bada salbuespenik, hala ere:

–Hitz arrunt batzuetan, zilegi dira, arauzko [g] soinua ez ezik, soinu belarra [x] Hegoaldean (gazt. *jamón*) eta sabaiaurreko ahostuna [ʒ] Iparraldean (fr. *jambon*). Esate baterako, honelako maileguetan:

agenda, kolegio, magia, geranio...

–Badira [y] eta [dʒ] ahoskerak ere, Hegoalde/Iparralde isoglosaren arabera:

gin (edaria) [yin/dʒin], ginseng (landare-sustraia) [yinsen/dʒinsen]...

### 1.3.2. <s, z>, <ts, tz>

Hizkera zainduan, pare horiek ondo bereiztera jo behar da.

[esker/ezker], [(h)esi/(h)ezi]; [atso/atzo], [(h)ots/(h)otz]

–Gaztelaniazko ahoskera hortzartekoa –[θ] (gazt. *lápiz*)– testuinguru guztietan da gaitzestekoa euskal hitzetan. Hutsak, batez ere, honako hauetan sumatzen dira, eta berariaz zaindu behar dira:

• Euskal leku- eta pertsona-izenen ahoskeran:

deiturak: [\*θubeldia, \*θuaθo, \*liθaso, \*θumalakarregi, \*θamudio, \*θuaθolaθigorruga, \*gar\*θia, \*arθallus...]

bestelakoak: [\*liθarrusti, \*liθarra, \*θestoa, \*θerain...]

• Hitz mailegatuen ahoskeran:

[\*θero, \*proθesu, \*proθesatu, \*soθiologia, \*esθena, \*trapeθista, \*esθeptiko, \*eskiθofrenia, \*θisyordania, \*aθentu, \*biθio, \*liθeo...]

–Erdaratiko leku- eta pertsona-izenekin nola jokatu behar den jakiteko, ikus 1.5. atala.

### 1.3.3. <b, g, r, d>

Bokalarteko kontsonante horiek beren horretan ahoskatu behar dira euskara zainduan:

[\*dao] / [dago]  
 [\*lanea] / [lanera]  
 [\*ean, \*eran] / [edan]  
 [\*pixkat] / [pixka bat]...<sup>17</sup>

#### 1.3.4. <r, rr>

Bereizi egin behar dira une oro. Frantsesezko ahoskera ubularra [R] (frantseseko <rue> hitzaren kontsonantearen ahoskera, alegia) saihestu egin behar da.

–Ez da egokia <r> samurra [r] <rr> azkar bihurtzea [rr]:

<ezer ez> [ezerez] / [\*ezerrez]  
 <inori> [inori] / [\*inorri]  
 <ezeri> [ezeri] / [\*ezerri]  
 <plazera> [plazera] / [\*plazerra]  
 <platera> [platera] / [\*platerra]  
 <anbarezko (bitxia)> [anbarezko] / [\*anbarrezko]

–<r> samurra mutu [Ø] geratzea ez da egokia hizkera zaindian<sup>18</sup>:

[zer berri dugu?]            [\*ze berri]  
 [hori eztaki inork?]

#### 1.3.5. <b>

Tradizioen arabera jokutzen da. Hizkera gehienetan ez da ahoskatzen [Ø].

–Hegoaldean, <joan> aditzaren iraganaldiko adizki jakin batzuetan –<zihoan, zihoazen>– ahoskera belarrak [x] –(gazt. *jamón*)– egokiak dira.

–Iparraldeko euskalkietako <ph, th, kh> letren ahoskeretarako, orobat dira egokiak ebakera hasperendunak.

<sup>17</sup>Bokalarteko galera horiek zilegi dira, ordea, hizketa zaindugabeen.

<sup>18</sup>Dena dela, [ze[Ø] berri dugu?], [(h)ori eztaki ino[Ø]k] eta gisakoak egokiak dira beste erregistro batzuetan.



-Euskara zainduan ez da egokia <h> bestelako hotsez ordezte:

<ihes> [\*iges], <lehor> [\*legor]

### 1.3.6. <il, in> bustidurak

Tradizioen arabera jokatu behar da; euskalkien eta aldaeren arabera, alegia:

<mila> [milla/mila], <mailu> [mallu/mailu]<sup>19</sup>, <bina> [biña/bina],  
<baina> [baña/baina]

Bestalde:

-<ñ> eta <ll> letrei dagozkien hotsek berezkoa dute bustidura:  
andereño, txoriño, gerrilla, galleta, bonbilla, tortilla...

-Hizkera bakoitzaren joerak gorabehera, ahoskera zainduan ez dira egokiak honelako bustidurak, aurreko <i>-k eraginak<sup>20</sup>:

<ditu> [\*dittu, \*ditxu], <gaitu> [\*gaittu, \*gaitxu]  
<deitu> [\*deittu, \*deitxu], <ohitu> [\*o(h)ittu, \*o(h)itxu]  
<aditu> [\*a(d)ittu, \*a(d)itxu], <maite> [\*maitte, \*ma(i)txe]

Bustidura adierazkorra, nolana ere, egokia da:

Anttoni, ttipi, ttantta, ttipi-ttapa, maitte-maitte egin...

-<ll> digrama sabaikari ahostun [ʎ] ahoskatzen ez dakienari, irakastea komeni da; ez da egokia haren ordezkari [y] sabaiko igurzkari ahostun egitea. Adibidez:

<oilo> [\*oyo/ ollo, oilo], <langile> [\*langiye / langille, langile]...

### 1.3.7. <j>

Ahoskera zainduan, [y] ahoskera da arau orokorra:

<jaiia> [yaya], <jaiio> [yayo], <jakin> [yakin], <jan> [yan], <jaso>  
[yaso], <jendarme> [yendarme], <jende> [yende], <jenio> (buru-argi-

<sup>19</sup>Erreparatu hitz-hasierako <ll>-ren ahoskerari: <llabur> [\*ilabur, \*yabur / llabur], <llama> [\*ilama, \*yama / llama]...

<sup>20</sup>Egokiak eta naturalak dira, hala ere, beste erregistro batzuetan.

tasun bereziko) [yenio], <joan> [yoan], <jokatu> [yokatu], <Maju><sup>21</sup> [mayu], <Josu> [yosu]<sup>22</sup>...

Badira, hala ere, inongo euskalkitan [y] ahoskatzen ez direnak, eta, beraz, salbuespen gisa, beste ahoskera bat dagokienak euskara estandarrean ere:

–(-*aje*) amaiera duten hitzak ez dira berdin ahoskatzen Hegoaldean eta Iparraldean, eta inon ez dira [y] ahoskatzen. Hegoaldean, [x] ahoskera belarra dute (gazt. *jamón*) eta Iparraldean, berriz, [3] ahoskera sabaiaurrekoa (fr. *jambon*):

adaje, bisaje, engranaje, fuselaje, garaje, ilaje, lumaje, makillaje, masaje (>masajista), paraje, pausaje, portzentaje, sabotaje<sup>23</sup>, zuraje...

–Hegoaldeko hitz batzuek gaztelaniazko ahoskera belarra [x] dute beti:

aje (ondoez, akats, bestondo), alproja (alfer, pikaro), antiojo (betaurreko), erloju (ordulari), esponja (belaki), forja (burdin jotze), ijito (buhame), jela (izotz, horma), jenio (aiurri), jertse (trikota), jipoi (zafraldi), jira (bira), jota (kantu zein dantza, baina ez alfabetoko letra), kalejira (biribilketa), korrejidore (agintari mota), traje (jantzia)...

bejondeizula, bejondeiala...

majo (jator/dexente), [mutiko] pijoa (trebea, behar bezalakoa), [neska] gajoa, [mutil] gizajoa...

ja-ja-ja, je-je-je, (j)i-ji-ji, jo-jo-jo, (j)u-ju-ju (ha-ha-ha, kar-kar-kar...)

iji eta uju (barreka, algaraz)

---

<sup>21</sup>Euskal mitologiako pertsonaia.

<sup>22</sup>*Josu* eta *Yosu* ez dira arauzko euskal grafiak; *Josu* da forma egokia, eta horren ahoskera ageri da hemen. Beste hauek ere ez dira arauzko grafiak: *Jon/Yon, Ione/Yone, Iulen/Yulen*... Honela dira: *Jon, Jone, Julen*...

<sup>23</sup>Komeni da ohartaraztea, hala ere, horien moldekotzat har litezkeen hainbat hitz ez direla multzo horretakoak, *Hiztegi Batuan* bestelako formaz ageri baitira: *bidaia* /<sup>\*</sup>*biaje*, *personaia* /<sup>\*</sup>*perstonaje*, *xantaia* /<sup>\*</sup>*txantaje*, *kuraia* /<sup>\*</sup>*koraje*, *bisaia*, etab.

### 1.3.8. <x>

Ahoskera sabaikaria du tradizioko euskal hitzetan eta mailegu zaharretan (edo integratuetan):

axola, axuri, faxista, kexu, mexikar, pixa, pixka (bat), puxtarri, taxu, uxatu, xake, xarma, xaxatu, xede, xeke, xiita, xume...

Manex, Moxolo, Uxue, Xabier...

Oro har, maileguetan dira salbuespenak. Honela erabiltzekoak dira halakoak ahoskera zainduan:

-Maileguaren sorburuko [ks] ahoskera mantentzea hobesten da bokalartekoa edota hitz-amaierakoa denean:

antrax, fax, hapax, klimax, lexiko, pixel, sexu, saxofoi, sintaxi, siux, taxi, taxonomia, toxiko, axioma, bauxita, exagono, exaedro, exorzismo, exodo, exotiko...

Baina mailegu batzuek ez dute ahoskera hori sorburuan, euskal [x] baizik:

klixe, afixa, enbaxadore, erlaxatu, kaxalote, bexamel, perrexil...

-<s> letraren ahoskera dute hitz-hasierako grekotiko hauek:

<xenofobia, xilofono... > [senofobia, silofono]

-<x> letrak [s]-ren ahoskera du Hegoaldean, kontsonante-talde bateko parte denean ere:

<marxista, halifaxtar... > [marsista, halifastar]

### 1.3.9. <w>

Bistan da erdal hitzetan ageri dela beti. Jatorri edo iturriaren arabera da ahoskera:

-Ingelesetiko maileguei diptongo-ahoskera dagokie ([ua, ue, ui, uo]):

<whiski, walkie-talkie, wifi, wimax, wikipedia...> [wiski, walki-talki...]

Winchester, Winston, Stephen Wolf [wolf], Virginia Woolf [wulf], Walter [walter] Scott ...

–Alemanetiko maileguetan, [b] balioa du Hegoaldean, eta [v] Iparraldean:

<walkiria, westfaliar, wagnertar...> [balkiria/valkiria, bestfaliar/vestfaliar...]

Wittgenstein [bittgenstein/vittgenstein], Wagner [bagner/vagner], Christa Wolf [bolf/volf], Volkswagen [folksbagen/folksvagen], Walter [balter/valter] Benjamin...

## 1.4. Kontsonante-bilkurak

Abiapuntuko arau orokorra:

Hitzak ez dira banan-banan esaten, taldeka baizik, zentzuaren arabera. Idatzizko banaketa silabikoa eta ahoskoa desberdinak izan litezke: <Neuk e-san ez di-at, ba> [neuk.e.san.ez.ti.a.pa], esate baterako. Halako lotura bereziei hots-uztartzeak deritze.

### 1.4.1. *Bai(t)-*

*Bait-* partikulaz osatutakoak, arauz, idatzi bezala –letren arabera, alegia– ahoskatu behar dira<sup>24</sup>:

bainaiz, baikara, baitoa, baihoa...

### 1.4.2. *Ez*

*Ez* partikulaz osatutakoak, berriz, hots-uztartzeak kontuan hartuta ahoskatzen dira. Batzuetan, arauz:

1. *ez* + <d-> → [e~~z~~t-]

<ez daki> [e~~z~~taki], [\*ezdaki]

2. *ez* + <z-> → [e~~z~~t-]

<ez zait> [e~~z~~zait], [\*ez zait]

<ez zuen> [e~~z~~zuen]

<sup>24</sup>ARAUAK 2, 1994-10-28

<ez zenion> [etzenion]

<ez zara> [etzara]

Eta, beste bi kasu hauetan, hobespenez:

3. *ez* + <b-, g-> → [ezp-, ezk-]

<(izan) ez balitz> [ezpalitz]

<ez gatoz> [ezkatoz]<sup>25</sup>

Badira beste bi kasu ere:

4. *ez* + <n, l>: bi ahoskera moldeak dira zuzenak (ikus Euskaltzaindiaren araua: EBAZ, XIII). Ikasmaterialetarako, <z> ez ahoskatzea gomendatzen dugu:

<ez nuke> [enuke], <ez naiz> [enaiz]

<ez luke> [eluke], <ez litzateke> [elitzateke]

5. *ez* + <h>: Hegoaldean, <h> ahoskatzen ez denez, [-z-]-ri eutsi egin behar zaio:

<ez haiz> [ezaiz], <ez huke> [ezuke]

Jakina, <h> ahoskatzen den hizkeretan, egokiak dira [ehaiz], [ehuke] moldeko ahoskerak.

### 1.4.3. <n, l, r> + <z>

<n, l, r> + <z> → [ntz, ltz, rtz] egitea gomendatzen du Euskaltzaindiak euskara zaindurako, ordezkatzeko hori egiten duten hizkeretan. Bi moldetakoak izan litezke:

a) *aditz-unitate* gisakoa:

<esan zuen> [esantzuen], <eman zion> [emantzion], <hil zen> [(h)iltzen], <etorri al zen> [etorrialtzen], <etorri behar zuen> [etorribe(h)artzuen]<sup>26</sup>...

<sup>25</sup>Nolanahi ere, ahoskera horrek tradizio txikia du Iparraldean.

<sup>26</sup>Inoiz <rk> + <z> → [rtz] ere gerta daiteke: <bazekien nork zeukan> [bazekien nortzeukan].

Aginteran eta, ahoskera zainduan, idatziaren arabera ahoskatzea da egokia<sup>27</sup>:

<jan ezazu> [jan ezazu]

<ez ezazu eros> [ez ezazu eros]

<ez dezazula pentsa> [etzezazula pentsa]<sup>28</sup>

b) *galdegaia*<sup>29</sup> + *aditza* gisakoak:

<han zebilen> [(h)antzebilen]

<hor zaude> [(h)ortzaude]

<han zetozkigun> [(h)antzetozkigun]

#### 1.4.4. <t, k> + <b, d, g>

<t, k> + <b, d, g> → [p, t. k]. Honela:

a) Unitate diren esapide-lokailuetan, aldaketa fonetikoa egitera jotzen da, erabat lexikalizatuta daude eta:

<batik bat, bat-batean, behinik behin, noizik behin...> [batipat, bapatean, beiñipein, noizipein]...

b) Galdetzaile batez eta *nahi* partikulaz osaturiko esapideak (*baitekin* bezala), idatzi bezala –letren arabera, alegia– ahoskatu behar dira:

–bai hitz bakar batean ematekoak direnak: [zerna(h)i, norna(h)i, nolana(h)i...]

–bai aukeran utzi direnak: [nona(h)i/non-na(h)i, zenbana(h)i/zenbat-na(h)i, nondina(h)i/nondik-na(h)i...].

---

<sup>27</sup>Nolanahi ere, tokian tokiko erabilerak ere egokiak eta zuzenak dira hizkera zaindugabeen: <jan ezazu> [jantzazu], <ez ezazu eros> [etzazu eros], <ez dezazula pentsa> [etzazula pentsa].

<sup>28</sup>Aditz batzuen kasuan, badira forma sasitrinko batzuk, erregistro batzuetan onartzekoak: *emaiozu, ekatzu, esaiezu*...

<sup>29</sup>Kasu honetan ez da hain lege zorrotza. Galdegaia eta aditza ez daude beti hain estu lotuak fonetikoki. Hala ere, multzo foniko bakar batean ahoskatzen direnean, egokia da ordezkatzeko hori.

c) *Galdegaia* + *aditza* lotura estuetan, bi modutara joka daiteke (idazkeraren arabera nahiz hots-elkarketa eginez):

<Zenbat da?> [zenbat-da?] / [zenbata?]

<Nork du?> [nork-du?] / [nortu?]

<horrek dauka> [(h)orrek-dauka] / [(h)orretauka]

<zuk dakizu> [zuk-dakizu] / [zutakizu]

<lagunak dira> [lagunak-dira] / [lagunatira]

Euskara zainduan ez da egokia honela ahoskatzea<sup>30</sup>:

<Zenbat da?> [\*zenbada?]

<Nork du?> [\*nordu?]

<zuk dakizu> [\*zudakizu]

<lagunak dira> [\*lagunadira]

#### 1.4.5. <n + n> / <l + l>

Adizkiaren muga gertatzen direnean, ez da etenik egiten, kontsonantea bikoizturik ahoskatu zein ez:

<joan nadin> [joanadin, joan.nadin]

<gal lezake> [galezake, gal.lezake]

#### 1.4.6. <-t(z)en + bokala>

<-t(z)en + bokala> → [-t(z)e + bokala]<sup>31</sup>. Honela:

<etortzen haiz> [etortze.aiz]

<ikusten hindugun> [ikuste.indugun]<sup>32</sup>

<sup>30</sup>Hizkera zaindugabearen erabilera arrunta horixe da, eta zuzena eta egokia da hala.

<sup>31</sup>Bokala diogu h-aren abstrakzioa egin dugulako adibideetan praktikotasunagatik.

Bestalde, aditz laguntzaile bati dagokion bokala dela ulertu behar da; <ez ziren etortzen eskolara>, <egiten ikasi> eta gisakoetan, ez da galtzen aditz-izenaren bukaerako <-n> hori. Idatzi bezala –letren arabera, alegia– esaten dira horiek: [etortzen.eskolara], [egiten.ikasi].

<sup>32</sup>[etortze'a; esate'u] eta gisakoak hizkera zaindugabeetako moldeak dira. Halakoak, jakina, osorik ahoskatu behar dira euskara zainduan.

### 1.4.7. *eta*

1. Idatzi bezala –letren arabera, alegia– ahoskatzen da euskara zainduan:

[patxi **eta** pello etorri dira.]

[jan **eta** edan]

<102> [e(h)un **eta** bi]

<arratsaldeko 5:30ean> [bost **eta** erdietan]<sup>33</sup>

2. Esapide batzuetan, ordea, onargarria da bestelako ahoskera ere:

<jo eta su / jo eta ke> [jotasu/jotake]

<lan eta lan> [landalan/lantalan]

<jan eta lo> [jandalo/jantalo]

<gau eta egun> [gautaegun/gautegun]

<Agur t' erdi> [agurterdi]<sup>34</sup>

### 1.4.8. *bada (lokailua) > ba*<sup>35</sup>

Oro har, ondoriozko lokailu hori osorik ahoskatzen da euskara zainduan: [bada].

Hala ere, erregistro batzuetan (antzerki-grabazioetako elkarrizketetan eta), *bada* > *ba* aldaera ere badugu, idatziz ere:

<Alde egizu, bada(!)>

<Alde egizu(,) ba(!)> [aldeegizuba]

<Ekarriko ez du(,) ba!> [ekarrikoeztuba]

Halako askotan, ez da sintaktikoki beregaina, eta, orduan, kontuan hartu behar dira gorago aipaturiko hizkera-maila zaindugabeetan egiten diren ahultzeak:

<Esaiok ba!> [esaiopa]

<Neuk esan ez diat ba!> [neukesaneztia'pa]

<sup>33</sup>Hizkera zaindugabeen egokiak dira, jakina, horiek honela ahoskatzea: zenbakiak, (<102>: [e(h)undabi]; orduak (<17:30> [bosterdiak]).

<sup>34</sup>Idazkera nola, batzuetan [agurtaerdi] ere onargarria da, tradizioak kontu.

<sup>35</sup>Hauxe dakar Euskaltzaindiak *Hiztegi Batuan*: **ba** 1 lok. h. **bada** (euskara mintzatuan -cf. elkarrizketak- onartzekoa da *ba* forma, maila neutroari *bada* forma dagokion arren).



### 1.4.9. -(e)z gero

Ortografia baturako, idazkera hori arautu da, baina badira bi ahoskera aukeran:

1. [-(e)zkero] :

<etorritz gero> [etorritzkerok]

<betez gero> [betezkerok]

<hilez gero> [(h)ilezkerok]

2. [.ezkero]:

<etorritz gero> [etorri.ezkero]

<betez gero > [bete.ezkero]

<hilez gero > [(h)il.ezkero]

Ez dago esan beharrik <ezkero> forma idatzia *-zazpiak ezkerok, bihar ezkerok*– halaxe ahoskatu behar dela beti.

## 1.5. Mailegu berriak: ahoskera eta idazkera<sup>36</sup>

Asko dira azken urteotan geureganatu ditugun maileguak (*campus, curriculum, whisky, charter, couché paper, software, hardware, smoking, bullying*<sup>37</sup>...). Horietako batzuen ahoskerak ez du arazorik sortzen, euskaraz ere jatorrizkoan bezala ahoskatzen baitira [campus, curriculum, esnob, yogurt...]. Beste batzuek, ordea, arazoa sortzen dute. Horiek hiru ahoskera molde hauetara bil daitezke<sup>38</sup>:

---

<sup>36</sup>Azpiatal hau lantzeko, Euskaltzaindiaren honako dokumentu hauek erabili dira: *Kanpoko leku-izenak euskaraz aboskatzeko irizpideak* gomendioa (158. araua), *Europako eskualde historiko-politiko nagusiak* araua (154. araua) eta *Euskara Batuaren ahoskera zaindua* (EBAZ) araua (87. araua).

<sup>37</sup>Mailegu batzuek egokitua dute idazkera (ikus *Hiztegi Batua*): esnob, jogurt, estandar...

<sup>38</sup>a) atalekoak *Hiztegi Batukoak* dira; b)-koak ez dira ageri *Hiztegi Batuan*.

### 1. Grafiak markatzen duen formatik hurbilen ahoskatzen direnak:

	Idazkera	Ahoskera
a)	charter	[txarter/xarter]
	royalty	[royalti]
	web	[web]
	...	
b)	<i>software</i>	[software]
	<i>hardware</i>	[har(d)ware]
	...	

### 2. Jatorrizko ahoskeran bezalatsu ahoskatzen direnak:

	Idazkera	Ahoskera
a)	byte	[bait]
	nylon	[nailon]
	couché	[kuxé]
	croissant	[kruasan]
	cowboy	[kauboi]
	...	
b)	<i>mâitre</i>	[metre]
	<i>sommelier</i>	[somelie(r)]
	...	

### 3. Ingelesezko *-ing* amaieradunak:

	Idazkera	Ahoskera
a)	esmokin/smoking	[esmokin] <sup>39</sup>
	kanpin/camping	[kanpin]
	holding	[holdin]
	mitin	[mitin]
	ranking	[rankin]
	driblin (*dribbling)	[driblin]
b)	<i>bullying</i>	[bulin]
	<i>rafting</i>	[raftin]
	<i>zapping</i>	[zapin]
	<i>catering</i>	[katerin]

<sup>39</sup>Halakoetan, tradizio bakoitzaren arabera ahoskatuko da <i></i>-ren ondoko <n> ([ñ] zein [n]): [esmokiñna/esmokiina].

Deklinabide-atzizkia eransteke orduan<sup>40</sup>, ez dute berdin jokaten a) eta b) sailekoek.

- a) moldekoak eskubide osoko mailegutzat hartzen dira, *Hiztegi Batuan* daude eta. Ondorioz, erabat *guretu* edo *etxekotuak* dira. Horiei, grafia arrotza gorabehera, euskara direnez dagoeneko, beste edozein euskal hitzi bezala eransten zaie deklinabide-atzizkia:

Idazkera	Ahoskera
charterra, charterrak...	[txarterra, txarterrak/xarterra, xarterrak]
croissant, croissantak..	[kruasana, kruasanak]
driblina, driblinak...	[driblina, driblinak]

- Azken-azken orduko mailegu *arrotzagoak*, aldiz -b) moldekoak; alegia, oraindik erabat *guretu* gabeak-, letra etzanez bereizten dira (edota, halako baliabide tipografikorik eskura ez dugunean, bestelako markaz), lehen agerraldian behintzat. Honela:

Idazkera	Ahoskera
<i>softwarea, softwareak...</i>	[softwarea, softwareak]
<i>hardwarea, hardwareak...</i>	[hardwarea, hardwareak]
<i>maitrea, maitreak...</i>	[metrea, metreak]
<i>chefa, chefak...</i>	[xefa, xefak]
<i>sommelierra, sommelierrak</i>	[somelierra, somelierrak]
<i>bullyinga, bullyingak...</i>	[bulina, bulinak]
<i>zappinga, zappingak...</i>	zapina, zapinak]
<i>maestro, maestroak...</i> (Mus.)	

Behin hitz ezaguna izanez gero, idazkeran, letra etzana kentzea hobesten da:

softwarea, softwareak...  
 sommelierra, sommelierrak...  
 zappinga, zappingak...  
 maestro, maestroak...

---

<sup>40</sup>-a artikulua eranstean, berezitasun bat edo beste tarteko, ahoskera-zalantza sortzen da zenbaitetan: [kruasana/\*kruasanta], [softwarea/\*softwarra], [hardwarea/\*hardwarra], [bulina/\*bulinga], [metrea/\*metra], [somelierra/\*someliera]...

## 1.6. Exonimoak (kanpoko izen bereziak): ahoskera eta idazkera

Bereizketa bat egin behar da horien artean ere:

1. Batzuk euskal ortografiara egokituta idazten dira. Halakoak euskal izenen mailakoak dira, eta EBAZaren arau eta gomendioen arabera ahoskatzen dira<sup>41</sup>. Deklinabide-atzizkia eranstea, euskal hitzek bezala jokatzeko dute. Esate baterako:

<b>Idazkera</b>	<b>Ahoskera</b>
Andaluzia, Andaluziaren...	[andaluzia, andaluziaren]
Florentzia, Florentziako...	[florentzia, florentziako]
Valentzia, Valentziatik...	[balentzia, balentziatik] <sup>42</sup>
Zipre, Ziprek	[zipre, ziprek]
Saxonia, Saxoniak...	[saksonia, saksoniak]
Sarajevo, Sarajevok...	[sarayebo]
Jalta, Jaltak...	[yalta]
Astrakhan, Astrakhanen...	[astra[x]an]
Mexiko, Mexikon...	[mexiko]
Texas, Texasen...	[texas]
Alexandro	[aleksandro]
Halifax	[halifaks]
Matrix	[matriks]

---

<sup>41</sup>Kontuan izan behar da mailegu batzuek ahoskera berezia dutela EBAZen arabera, batez ere <x> grafemaren ahoskerari dagokionez: taxi [taksi]. Izen berezien kasuan gorabeherak izan daitezke jatorriaren arabera: Anaximandro [anaksimandro], Mexiko [mexiko]. Ikus 1.3.8. puntua.

<sup>42</sup>Goranzko diptongoaren arazoa sortzen da horietan: Valentzia [balentzja]/Valentzi.a]. Silaba batean ala bitan eman behar dira horiek? Orobat gertatzen da erdal jatorriko zenbait izen-abizenetan: Juan/Ju.an, Juarez/Ju.arez, Gutierrez/Guti.erez... Jatorrizko ahoskerari eustea da gomendioa; goranzko diptongo egitea, alegia.

2. Badira, bestetik, euskaraz ere jatorrizkoan bezala idazten diren batzuk. Halakoak jatorrizko hizkuntzan bezala ahoskatzekoak dira, idazkera gorabehera.

**-Idazkera:**

Idatziari erreparatuta erantsi behar dira atzizkiak: kontsonantez ala bokalez amaitutako izena den kontuan hartuta, alegia. Izen bereziak izaki, ezin direnez letra etzanez eman, ezezaguntzat jotzen direnak marratxoz bereiziko dira, lehen agerraldian behintzat.

**-Ahoskera:**

Izenaren ahoskerari erreparatuta ahoskatzen dira atzizkiak.

<b>Idazkera</b>	<b>Ahoskera<sup>43</sup></b>
Google, Google-ren... (gero <sup>44</sup> : Googleren)	[gugel, gugelen] <sup>45</sup>
Apple, Apple-ren...	[apel, apelen]
De Gaulle, De Gaulle-ren...	[degol, degolen]
Shakespeare, Shakespeare-ren...	[xespir, xespirren]
Newton, Newton-en...	[niwton, niwtonen]
Tiziano, Tiziano-ren...	[titziano, titzianoren]
Da Vinci, Da Vinci-ren...	[dabintxi, dabintxiren]
Giuseppe Verdi-ren	[jiusepe berdi]

<sup>43</sup>EBAZek honela dio: “Ezinezkoa da erdara guzti-guztietako ahoskerak ezagutzea, baina komeni da saiatzea”. Ahaleginak ahalegin, hiztun bakoitzak ez du zertan jakin munduko milaka erdaren ahoskeraren berri zehatza. Horregatik, ezin desegokitzat jo nolabaiteko letraz letrako ahoskera ere: Shakespeare [xakespeare], Nimes [nimes], Descartes [deskartes].

<sup>44</sup>Alegia, bigarren aipamenetik aurrera, oro har, marratxorik gabe idaztea gomendatzen da, jadanik izen ezaguntzat jotzen da eta (Google, Googlek, Googleren, Googleri...). Kanpoko izen guztientzat balio du arauak: Apple-ren > Appleren; Shakespeare-ren > Shakespeareren; Poitiers-en > Poitiersen; Descartes-i > Descartesi; Guggenheim-go, Guggenheim-eko > Guggenheimgo, Guggenheimeko, etab. Salbuespena <r> letraz amaitzen direnena da: Schopenhauer > Schopenhauer-en; Moor > Moor-entzat...

<sup>45</sup>Euskarazko ahoskerarako proposatzen ditugun formetan, indar-azentuaren tildarik ez dugu markatu; kontuan izan, ordea, hainbatetan, ezinbestekoa dela azentua nabarmentzea ahozkoan (Google [gúgel], De Gaulle [degól], Cambridge [kánbritx], Calais [kalé], Cagliari [kállari])...

Cambridge, Cambridge-tik	[kanbritx, kanbritxetik] <sup>46</sup>
Washington, Washingtondik/-etik	[waxinton, waxintondik/ waxintonetik]
Calais, Calais-etik	[kale, kaletik]
Valence, Valence-tik	[balenz, balenzetik]
Nimes, Nimes-etik	[nim, nimetik]
Poitiers, Poitiers-etik	[pwatie, pwatietik]
Westfalia, Westfalia-ren	[bestfalia, bestfaliaren]
Württemberg	[bürtemberg]
Hamburg	[hanburg]
Piacenza	[piatxentza]
Chieti	[kieti]
Cagliari	[kallari]
Zaragoza	[[ <b>θ</b> ]arago[ <b>θ</b> ]a] <sup>47</sup>
Ciudad Real	[[ <b>θ</b> ]iwdarreal]
Algeciras	[al[x]e[ <b>θ</b> ]iras]
Elx	[eltx]
Cerdanya	[serdaña]

Nolanahi ere, badira salbuespenak. **Renault** eta **Michelin**, esate baterako, desberdin ahoskatzen ditugu Iparraldekoek eta Hegoaldekoek. Gerta litezke **Microsoft** modukoak ere; [mikrosoft] ahoskatzen da nagusiki, eta ez, jatorrizkoari erreparatuta, [maikrosoft].

<sup>46</sup>Ulertzekoa denez, euskarazko ahoskerarako proposatzen ditugun bokalen ordain fonetikoak ez dira beti zehatz-zehatzak, ahalik eta hurbileneakoak baizik.

<sup>47</sup>Nolabaiteko tradizioa dutelako, EBAZaren arabera ere (alegia, euskarazko ahoskeraren arabera ere) ahoska daitezke honako hauek: Zaragoza, Zamora eta Ceuta ([zaragoza], [zamora], [zeuta]. Berdin gertatzen da Argentina izenarekin: onargarria da [argentina] (<g>ri euskarazko balio emanda, [gerezi] bezala). Orobat gertatzen da Paris izenarekin: onargarria da [paris] esatea, nahiz frantsesez [pari] esaten den.



## 2. Euskal prosodia

Ez dago hizketarik prosodiarik gabe (ikus lehen oin-oharra). Euskarak ere badu berezko prosodia, berezko *musika* (zehazkiago hitz eginda, berezko prosodiak, berezko musikak esan beharko genuke, pluralean). Euskaldunak ez direnek soinu berezia hartzen diote gure hizkuntzari, eta guri ere berdin gertatzen zaigu: musika jakin bat lotzen diogu gaztelaniari, beste bat frantsesari, beste bat ingelesari, italiarari...

Ahoskeran, hots-bilkurak eta hots-aldaketak bezain garrantzitsuak dira esaldiko elementuen bilkurak eta haiek osatzen duten kate mintzatua. Benetako hizketa ez da letraka gertatzen, ez eta silabaka ere, ez eta hitzez hitz ebakita ere, esaldika baizik. Ahozko komunikazioan, hitzak andanaka esaten dira, esaldien barruan sartuta (hitz bakarreko esaldirik ere izan liteke, noski). Ahoskeran, erdi-lana baino ez da letrak nola ahoskatu behar diren esatea<sup>48</sup>: [[**x**]eolo[**x**]ia] / [geologia] / [[**3**]eolo[**3**]ia], [sesua] / [seksua]; behar bezalako erritmoa, intonazioa eta azentua izan ezean, alferrik ari gara, esaldiak ez baitira sinesteko modukoak izango. Esaldiek, berezko musika, osagai horiekin guztiekin lortzen dute.

Esaldia da prosodiaren unitate behinena, eta esaldiak –hizkuntza bakoitzak berezko moldean, jakina– hainbat faktoreren mende daude: indarra (ozentasuna), maiztasuna (garaiera), iraupena, lastertasuna, erritmoa, intonazioa, azentu-eredua, fokalizazioa (galdegaiaren enfasia), perpaus mota, hiztun-igorlearen asmoa eta abar.

Deskribatzen eta sailkatzen zailak diren osagaiak ditu prosodiak; hala ere, euskal prosodiaren funtsezko hiru alderdi jorratzen saiatu gara liburuki honetan:

1. Esaldien erritmoa
2. Esaldien intonazioa
3. Azentua

---

<sup>48</sup>Metodologikoki banatuta eman baditugu ere, bokalen eta kontsonanteen ahoskera ere prosodiaren parte da berez. Bokal- eta kontsonante-kateak musika-eredu horietan txertatzen dira hizkuntza hizketa egiten denean.



## 2.1. Esaldien erritmoa

Euskararen eredu prosodikoan, euskararen erritmoa bi osagai nagusiren mende dago batez ere: silabaren nagusitasunean eta esaldiaren sekuentzia-banaketan.

### 2.1.1. Silabaren nagusitasuna

Euskal fonologiak eta prosodiak silaba-egitura du ardatz; silaba du erritmoaren oinarritzko unitatea. Zenbait hizkuntzatan, silaba azentudun eta azentugabeen araberako joko erregularrarekin lortzen da, hein handi batean, erritmoa. Gurean, ordea, badirudi silaben iraupen orekatuan dagoela kakoa<sup>49</sup>:

<i.txu.ra.ke.ri.ak / mo.zo.rro.tu.ta.ko (/) ge.zu.rr(h)an.di.a.da / mun.du.a>

Beraz, ahoskera-doinuera egokiz mintzatu nahi duenak euskal prosodiaren funtsezko osagai den silabaren nagusitasunaz jabetu beharra dauka. Berdin jokatu beharko da idatzitik irakurtzean ere, mintzatuaren isla izan behar baitu irakurketak. Azentuari buruzko atalean sakonduko da kontu hori.

### 2.1.2. Sekuentzia-banaketa

Esaldien sekuentzia-banaketak ere eragin erabakigarria du hizkuntzaren prosodian. Hiztunak hitz andana jakin batzuetan banatzen du esaldia, eta gero esaldi hori beste batzuekin lotzen.

Horregatik, puntuazioa eta hitz-zatiketa ortografikoa gorabehera, hitz andana batzuk etenik gabe irakurri behar dira euskaraz, zentzua ondo emango bazaie, eta esaldiak ezin dira nolana sekuentziatu.

#### 2.1.2.1. Etenik gabe ematekoak diren sekuentziak

**-Zenbait hitzez osatutako bilkurak: hitz elkartuak, errepikapenak, izen berezi + izen arrunt aposizioak, postposizioak...**

---

<sup>49</sup>Pilartxo Etxeberria, "Mintzakantuaren oharmena", in *Euskera* 1998 (2).

<zuri-gorriak>; <kale-garbitzailea>; <eliz ataria>; <itsas portuak>;  
<diru falta>...

<lasai-lasai>; <ikus-makusika>; <nahas-mahas>; <tarteka-marteka>;  
<txitean-pitean>...

<alde zurretik>; <gaur egun>; <ate ostean>; <hitzez hitz>; <kalerik  
kale>...

<Ebro ibaia>; <San Ignazio eguna>...

<diotenaren arabera>; <zuri buruz>...

### **-Izenondoa eta aditzondoa, eta haien osagarriak**

<Hain ondo> sekula ez naiz ibili.

Gauetik goizera egin zen <oso ezagun>.

<Izugarri handia...>

### **-Izena eta haren osagarriak, erlatiboak barne**

<Kale-garbitzaile berritsuak> egunero agurtzen nau.

<Gorputzean dugun koipe-geruza> ezinbestekoa zaigu osasunerako.

### **-Aditza (+ partikula atxikiak)**

Udaberrian, antxo gutxi <sartu da> Getariako portuan.

Oraintxe bertan <joan zaitezke> <atsegin baldin baduzu>.

Gure neska-mutilek <ba omen dakite> hori egiten ere.

### **-Galdegia eta aditza (+ predikatuaren osagaiak)**

Zure lankide hori <oso ezaguna genuen>.

<Oraintxe bertan joan zaitezke>, atsegin baldin baduzu.

<Aukera ezin hobea da hori egiteko>.

<Aldez aurretik jakinarazi zien guztia>.

<Talde-lanari esker bukatu dugu hain goiz lana>.

#### *2.1.2.2. Etenez ematekoak*

Halakoetan, beti ez bada ere, puntuazio-marka izaten da etenaren seinalea. Jakina, eten guztiak ez dira berdinak, askotariko egitura sintaktikoak eta semantikoak islatzen baititu prosodiak. Lan honetan *etena* diogunean, zera uler bedi zehazki: doinu-gorabehera adierazgarria.

Horrek esan nahi du delako etenak ez dakarrela nahitaez hitz-katea bertan behera uztea; tonuaren etena da adierazgarria (*inflexioa*), eta esaldiak aurrera jarraitzen du.

### -Lokailuak eta antolatzaileak

Lokailu eta antolatzaile asko koma artean ematekoak dira (gutxienez), eta horren arabera ahoskatzekoak:

Har dezagun, /*beraz*, / erabakia.

*Izan ere*, / zuk ez dakizu zer den gauza ona.

Einsteinek, / *hain zuzen ere*, / garbi utzi zuen hori.

Halako elementuak, /*alde batetik*, / konplexuak dira, eta, /*bestetik*, / ezezagunak.

*Lehenik*, / hau egingo dugu; / *gero*, / beste hori.

Mintzagaiari dagozkion lokailuak (*behintzat*, *aldiz*, *beraz*, *ordea*, *baina*, *ba(da)*...) koma artean ematen dira, eta horren arabera ahoskatzen:

Zuk, *behintzat*, / badakizu egia esaten.

Zuk, *aldiz*, / ez duzu sekula asmatzen.

Esanak esan, *beraz*, / honako bi hauek dira kontuan hartzekoak.

Horrela, *ba(da)*, / lehen esan bezala egingo ditugu gauzak.

*Ere*, enklitikoa denez, aurreko hitzarekin batera ahoskatu behar da:

Nik, /*gaur ere*, / bizikleta ekarri dut.

Badira beste elementu batzuk ere etenik gabe ahoska daitezkeenak, aurreko sintagmarekin loturik badoaz:

/zure lagunak *batez ere*/...

/zure lagunak *bakarrik (soilik)*/...

/zure lagunak *gehienbat*/...

### -Zerrenda baten osagaiak (juntagailurik ez denean)

Horixe gertatu zitzaizen denei: / *ikasleei*, / *irakasleei*, / *gurasoei*...

### -Mintzagaia

*Goizean*, / *lantokian*, / oso biltzar luze eta kalapitatsua izan zuten.

*Modu batera edo bestera*, / *bemen*, / lan egin beharra dago.

Mintzagaia subjektua baldin bada, komarik gabe doa ia beti:

*Nagusiek eta langileen ordezkariak / oso biltzar luze eta kalapitatsua izan zuten.*

Mintzagaiaren segidan aditza badator, ezinbestekoa da etena markatzea, esanahia aldatzen baita:

*Hemen, / erre daiteke (, baina kantatu ez).*

*Hemen erre daiteke (=Hau da erretzeko lekua).*

### **–Mintzagai diren mendeko perpausak**

*Zuk diozunez, / aditza da osagai nagusia.*

*Lanak amaituta, / jolastokira joan ziren haurrak.*

*Nahi duzunean, / trenez joango gara Donostiara.*

Hala ere, mendeko perpausa esaldiaren subjektua denean, ez da komarik, baina bai etena:

*Herrian bizitzeak / asko lagundu zion.*

Mendeko perpausa galdegai denean, ez da etenik:

*Nahi duzunean joango gara trenez Donostiara.*

Perpaus erlatiboetako hitz guztiak batera esan behar dira, etenik gabe (ikus 2.1.2.1. epigrafea):

*Mendian ikusi duzun gizona / gure aita da.*

*Leihotik begira egoteko esan diguzun unetik,/ ez da ezer gertatu.*

### **– Perpausen juntadura eta alborakuntza**

Ez da ohartu, / eta ezin egin.

Eskatu diot, / baina ez dit eman.

Agindu dio etxean geratzeko, / eta handik ez mugitzeko.

Ez naiz teoriaz ari, / ezpada praktikaz.

Nahikoa da gaurkoz; / bihar amaituko dugu.

Etxera joan da: / bero handia egiten du.

Esan dio ez duela astirik, / etxean geldituko dela.

## -Banakuntzazkoak

Dela telebistak, / dela irratiak, / berdin-berdin aspertzen naute biek.  
Nahiz batuan, / nahiz edozein euskalkitan, / dotore mintzo zaitezke.

## -Aposizioak eta tartekiak (azalpenak)

Biltzar-hiria Donostia izan zen, / Gipuzkoaren hiriburua.  
Zeuk ere, / *hala nahi baduzu behintzat*, / erraz egin dezakezu .  
Zeuk ere // *-hala nahi baduzu, / jakina-* // erraz egin dezakezu<sup>50</sup>.

## -Estilo zuzenean jasotako hitzak (bi puntuek erabateko pausaldia markatzen dute):

Honela dio liburuak: / «Bizidun zelulabakarrek...».  
«Baina nor zara zu ni horrela estutzeko?», / oldartu zitzaion.

## 2.2. Esaldien intonazioa

Kate mintzatuaren intonazioa *-doinuera* ere esaten zaio- garrantzi handiko kohesio-elementua da diskurtsoan. Osagai testual eta kontestual askoren mende dago ezinbestean: komunikazio-asmoa, enfasia, egoera...; hiztunaren, euskalkiaren eta azentu-ereduaren arabera ere alda daiteke, noski. Idatzian, puntuazioak lagundu behar du doinuera islatzen.

Euskaraz, bada intonazio molde bat baino gehiago, perpaus motaren eta galdegaiaren nabarmentasunaren arabera.

### 2.2.1. *Perpaus moten arabeko intonazioa*

Badira hiru perpaus mota, eta doinuera desberdina dagokio bakoitzari.

-**Adierazpen-perpausetan**, behean hasi, azentudun lehenengo silaban erdiko tonura igo, eta esaldi-amaieran behera egiten da (beheranzko tonema):

Zinemara joango *naiz.* ↓  
Trena zazpitan atera *da.* ↓

---

<sup>50</sup>Zehar-marra (*slash*) bikoitzak pausa luzeagoa adierazi nahi du nolabait.

Tonu berari eusten zaionean, aurreko sekuentziak jarraitzen duela adierazten du:

Zinemara joango *naiz* → lanak amaitzean.↓

Zerbait gehituko dela markatzeko, goranzko tonema erabili ohi da:

Zinemara joango *naiz*↑, / lanak amaitzean.↓

Era berean, esaldiaren hasieran mintzagairen bat badator, goranzko tonema erabili ohi da:

Ostegunean↑, zinemara joango *naiz*.↓

Esaldiari hitz andanak gehitu ahala, etenak-eta egokitu egin behar dira:

Atxaga, Asteasukoa jaiotzaz, gaur edo bihar etorriko da gurera.

→ Atxaga↑[↓Asteasukoa jaiotzaz]<sup>51</sup> → gaur edo bihar etorriko da gurera.↓

Atxaga, Asteasukoa bera, denok dakizuenez, eguraldia lagun, gaur edo bihar etorriko da gurera.

→ Atxaga↑[↓Asteasukoa bera [↓denok dakizuenez]] → eguraldia lagun↑ gaur edo bihar etorriko da gurera.↓

### -Galde-perpausetan, bi mota bereizten dira.

- Galde-hitzarekin osaturiko perpausetan, galde-hitza bera da bai informazioaren eta bai doinuaren gunea (galdegaia), eta hark hartzen du enfasia (letra lodiz adierazi da). Esaldiaren amaierako doinua aldakorra da hizkeren, hiztunen eta egoeren arabera; sarritan, hala ere, beheranzkoa, adierazpen-perpausen antzera:

**Norekin** etorri zara etxera?↓

**Zer** esan du horko gizon horrek?↓

**Nola** etorri zara: **oinez** ala **autoz**?↓

---

51 Tartekiak tonua beheratuz esaten ditugu.

- *Bai/ez* galderetan, aditzean baldin bada go gunea, hark hartzen du enfasia, eta esaldiaren amaierako doinuak gorantz egiten du:

Jan nahi dituzu tripakiak?↑  
 Ekarri duzu ogirik?↑  
 Ekarri duzuia?↑

Beste sintagma bat baldin bada galdegaia, hark hartzen du enfasia:

Tripakiak jan nahi dituzu?↑

Baldin eta *al* partikula erabiltzen bada, hark hartzen du enfasia, eta amaierako doinua beheranzkoa da:

Zazpitan atera al da trena?↓  
 Ekarri al duzu ogia? ↓

Ikusi, beraz, kontrastea:

Ekarri duzu ogia?↑  
 Ekarri al duzu ogia? ↓

Galde-perpausetan ere, adierazpenekoetan bezala, banakuntzazkoak izanez gero, tartean goranzkoa (↑) eta bukaeran beheranzkoa (↓) egitea dagokio:

Zentral termikoa bai ↑ ala zentral termikoa ez? ↓

**-Harridura-perpausetan**, osagai gehiago sartzen dira (igorlearen asmoa [agindua, abisua, ezustea, harridura bera...], testuingurua, galdegaiaren enfasia, eta abar), eta ez dago beti modu jakin bati lehentasuna ematerik. Hotsen iraupena ere ez da beti bat izaten, haiek luzatzeko joera baitago halakoetan. Nolanahi ere, perpausaren hasierak hartzen du halako indar berezi bat:

Bai polita dela!  
Hau zoriona!  
Eskerrak garaiz joan nintzen!  
Zainen polita den udaberria!

Harridurazko perpaus batzuek galderazkoak hartzen dituzte oinarri:

Ekarri al duzu ba ogia!?

Zazpian atera al da ba trenari!?

### 2.2.2. *Mintzagai-galdegaiak*

Elkarrekin doazen bi kontzeptu dira *mintzagaia* (topikoa) eta *galdegaia* (fokua).

Mintzagaiak informazioaren markoa, unibertsoa finkatzen du, eta finkatze hori, gehienetan, informazio zaharra edo ezaguna da, eta perpausaren hasieran doa. Galdegaiaren intonazio-unitateak baino tonu apalagoa erabiltzen du mintzagaiak. Adibideetan, letra etzanez adierazi dugu.

Galdegaia perpausaren enfasi berezia hartzen duen osagaia da; aditzaren ezkerretara joaten da eskuarki (aditza bera galdegai ez bada, behintzat) eta harekin batera ahoskatu behar da, intonazio-unitate berean. Tonuan gorakada nabarmen bat eragiten da. Adibideetan, letra lodiz adierazi dugu, eta, azpimarratuz, berriz, aditzarekin osatzen duen intonazio-unitatea:

Arestian, etenik gabe ematekoak diren sekuentzietan kokatu dugu galdegaia (ikus 2.1.2.1.). Perpausaren galdegaia zehaztearekin lotuta dago talde prosodiko bakoitzari dagokion enfasia ezartzea. Esaldi bakoitzari dagokion intonazioa nabariki desberdina da galdegaiaren posizioaren arabera. Mintzagai/galdegai jokoak behar bezala menderatu ezean, nekeza da intonazioari modulazio egokia ematea, eta horretan oinarritzen da hein handi batean hizkuntzaren egokitasuna.

**(Galdegaia)**

.....  
*Etxe horretan, Maddi bizi da.*

.....  
**(Nor bizi)**

.....  
*Atzo, zer egin zenuen?*

.....  
**(Zer egin)**



<i>Goizean, eskolan, <b>neskek</b> irabazi dute futbol-partida.</i>	( <b>Nork</b> irabazi futbol-partida)
<i>Goizean, eskolan, <b>futbol-partida</b> irabazi dute <b>neskek</b>.</i>	( <b>Zer</b> irabazi neskek)
<i>Liburua, <b>neuk</b> irakurri dut.</i>	( <b>Nork</b> irakurri liburua)
<i><b>Zuri</b> irakurri dizut liburua.</i>	( <b>Nori</b> irakurri liburua)
<i>Sartu zarenean, <b>jausi</b> egin zait liburua.</i>	( <b>Jausi</b> da galdegaia)
<i>Azkenean, <b>jausi zaizu</b>.</i>	(Aditzaren <b>baietza</b> da galdegaia)

## 2.3. Azentua

### 2.3.1. Sarrera-oharrak

Prosodiako elementua da azentua ere, eta honela defini daiteke: modu adierazgarrian silaba bat besteetatik nabarmentzea, tonuz nahiz intentsitatez.

Auzi zaila da azentuaren hau, molde asko baita euskaraz; azentu-sistema bat baino gehiago, alegia. Idatzia bakarra izan arren –horretarakoxe dugu euskara batu estandarra–, hizkerak askotarikoak dira, azentua barne. Euskalki bakoitzak, eskualde bakoitzak, baita auzo bakoitzak ere, bere prosodia du gurean, bere azentu-doinuera; modu zainduan ala zaindugabea ari garen ere, ez dugu prosodia bera erabiltzen; hiztunaren egoera eta beharra ere ez da beti bera izaten; komunikazio moldeak ere ez dira berdinak kontaketan, elkarrizketan ala irakurketan ari garen, eta, ondorioz, azentua ere ez da berdina. Ezin, beraz, arau zurrunik eman, aukerak bat baino gehiago dira eta.

Euskaltzaindiak ez du inolako jarraibiderik eman azentuaz. Guk, geroxeago zehazten den moduan, jarraibide erabilgarri bat eskaintzeko

asmoz, azentu-sistema baten alde egin dugu, euskara estandar jasoan aritzeko aukera egokia delakoan. Horrek, ordea, ez du esan nahi beste moldeak txartzat hartzen ditugunik. Gurea ez da euskal azentuaren kode bakar gisara ulertu behar. Gure aholkuek ez dute ito nahi euskalki eta aldaera bizien oinarri eta tradizio hori. Areago: etxean edo lagunartean hizkuntza bereganatu duenak, berariaz ikasia izan zein ez, hizkuntzaren gaitasun eta ezaguera sendoa izaten du, eta ez du aholku hauen beharrik. Hizkuntza mintzatu naturalak arau bere-bereak eta biziak ditu, eta gomendio hauek ez dituzte horiek ordeztu nahi<sup>52</sup>.

Liburukiaren atarikoan esaten den bezala, euskara estandarra maila zainduetan erabiltzeko dela ulertu behar da; batez ere, irakurtzeko orduan (ikus-entzunezko grabazioetan eta eskolako irakurketa-saioretan<sup>53</sup>), eta eskolako hitzaldi formaletan. Izan ere, eskoletan eta grabazio-etxeetan diharduten irakasleak eta esatariak egunero ari dira erabakitzen zein den euskal azentuaren moldea, eta zalantzak dituzte. Haiei laguntzeko, beraz, euskara batuari begirako<sup>54</sup> azentuaren ezaugarri jakin batzuk eskaini nahi dira lagungarri modura (asmo hori du 2.3.2. epigrafeak), eta, orobat, euskal molde naturalen aurka doazen ahoskera-alor batzuk zaintzeko zenbait gomendio eskaini (2.3.3. epigrafea).

Zergatik egin aukera? Zertarako jarraibideak? Oso arrunt ari zaizkigulako bihurtzen euskarak orain arte ezezagun izan dituen

---

<sup>52</sup>Elkarrizketarako, narrazioarako, enfasi moldeetarako... ereduak nahi badira, euskaldun zaharren solas bizietara jo behar da; haien prosodiara, alegia.

<sup>53</sup>Irakurketa eta bat-bateko solasa ez dira gauza bera. Irakurtzeko orduan dago gaztelaniaren azentuazio moldera jotzeko arrisku handiagoa, eta, jakina, eskolan gehienetan, irakurri egiten da. Eskolan, bestalde, euskal eta erdal oinarriko ikasleak ditugu. Euskara irakurriaren prosodiako gomendio hauek, irakurketarako egokiak izanik ere (euskara batua irakurri behar denerako, labur esanda), ez dira ezinbestean aplikatzekoak euskal oinarriko ahosko hizkera naturalean. Bai, haatik, erdal oinarriko ikastaldeetan euskarazko eskolak emateko.

<sup>54</sup>Komeni da berriro gogoraraztea: asmoa ez da zehazki euskal azentua arautzea, baizik eta euskara estandar jasoaren azentuan bateratsu jokatzeko jarraibide batzuk ematea. Izan ere, inoiz ahoskera (edota azentuera) baturik bada ere, ez da erabat bakarra izango, hizkeren eta aldaeren musikalitate berezkoa, gehiago-gutxiago, antzeman egingo baitzaio hiztunari.

ahoskera eta azentu molde *berriak*<sup>55</sup>, arrotz itxurakoak gehienetan. Honelakoak, esaterako:

[\*xoatén bagára kótkez?]  
[\*(h)emén bizi na(h)i-dúgu.]  
[\*egin be(h)ar-dúgu bion-artéan.]  
[\*denbora-geyágo bizi-(ah)al-díra.]

Euskal prosodiaren ezaugarri nagusia silabaren erritmoa izanik (2.1.1. epigrafea), berez lor daiteke euskal azentuaren molde natural bat silaba guztiak antzeko indarrez ahoskatuta. Baina euskara estandar jasoan ari den gaur egungo euskaldunaren oharmenean –fenomeno fisiko eta psikiko modura– badu nortasuna azentuaren kokalekuak ere<sup>56</sup>. Eta bada azken urteotan euskaldunok egoki eta natural hauteman eta hartzen dugun azentu molde jakin bat ere. Agerikoa da, horretan, irrati-telebisten eragina. Euskara batuaren azentuaziorako egin diren proposamenek (Txillardegi, 1984, 1992; Hualde, 1994) funtsean errealitate hori hartu dute eredutzat. Hautu egokia iruditzen zaigu EIMArako ere<sup>57</sup>, eredu horrek abantaila didaktiko nabariak ditu eta. Horren garapena dator 2.3.2.2. epigrafean.

Aukerak aukera, labur dezagun mezua: azentua ez da bakarka eta libreki moldatzen, baizik eta, mailaz maila, zenbait alderdiren eragina eta haiekiko mendekotasuna gorde behar ditu ezinbestean. Lehenik, silaba bakoitzak duen iraupena. Bigarrenik, silaben iraupenaren araberako antolaera uztartu beharra hitz andanekin, intonazio-sekuentziekin eta galdegaiaren enfasiarekin. Eta, azkenik, horren guztiaren gainetik, esaldiaren osotasunak erritmo jakin bat izatea<sup>58</sup>.

---

<sup>55</sup>Miren Lourdes Oñederra, “Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak” in *Euskera* 43, 1998, 2.

<sup>56</sup>Iñaki Gaminde, “Euskal azentua gaur eta bihar” in *Euskera* 43, 1998 (2).

<sup>57</sup>Azentu-sistema hau eta, besteak beste, zubererarena bereziki, hala ere, ez datoz bat. Aukera egin beharrak dakarren ordaina da.

<sup>58</sup>Ez dago esan beharrik euskal prosodia analisi sakon, luze eta kontrastatuago batzuen premian dagoela oraindik. Hala ere, ezin atzeratuzkoa deritzogu gutxieneko arau-esparru bat zedarritzeari.

## 2.3.2. Euskal azentuaren ezaugarri zenbait

### 2.3.2.1 Ezaugarri orokor batzuk

- Euskaraz, bada azentua, tokian tokikoa, eta tonuzkoa zein indarrezkoa izan liteke; baina, auzo-erdarekin alderaturik, euskararena ez da azentu nabarmena. Horrexegatik da hain finkagaitza (zaila zehazten) eta hain moldakorra<sup>59</sup>.
- Azentu-unitatea, oro har, ez da hitz soila, baizik aldiari aldiko sekuentzia, hitz andana edo talde prosodikoa. Horretan, zeresan handia dute deklinabideko atzizkiek; izan ere, azenturik gabeak izanik (enklitikoak, alegia), aurreko hitzari lotuta osatzen dute beti azentu-unitatea. Baina ez deklinabideko atzizkiek bakarrik; besteak beste, baita determinatzaileek, izenondoek, postposizioek eta aditz trinkoek ere.

Testuinguruaren arabera, molde honetakoak izan litezke azentu-unitateak:

		(Kategoria gramatikala)
	[I.ru.ñe.a], [(h)e.me.zor.tzi]	erroa
	[txis.tu.la.ri.a]	izen-sintagma
<txistulari bat>	[txis.tu.la.ri.bat]	izen-sintagma
<txistulari hura>	[txis.tu.la.ri.(h)u.ra]	izen-sintagma
<hemezortzi kilometro>	[(h)e.me.zor.tzi.ki.lo.me.tro]	izen-sintagma

<sup>59</sup>Esan nahi baita, askotan bere nortasuna galtzen duela osotasun melodikoan. Horrexegatik, indar-azentu nabarmenik ez duelako (edo, nahi bada, azentu leuna, malgua eta aldabera duelako), euskara ondo egokitzen da kantuarekin eta musikaren tonu-gorabeherekin. Bat-bateko bertso-tradizioa dugu horren islarik garbiena: bertso-kantuan, silabaren kopuruaz gainera, doinua da solasaren gidaria, eta haren erritmoan eta neurrian aritu behar du bertsolariak. Azentua urtu egiten da orduan, eta ez du inolako eraginik. Bertsolariak, euskalkiak euskalki, bere eguneroko hizkeran azentu gainartzaile jakin bat erabiltzen badu ere (indar-azentu moldekoa izan zein tonu-azentu moldekoa izan), hura erabat egokitzen du (ezereztan du) kantuaren eta metrikaren erritmora. Adibidez, gaztelaniazko <profesor> edo <bárbaro> hitzetako azentuak, oro har, azentu musikalekin ezkondu egin behar dira; ez da hala gertatzen euskarazko hitzekin (konparazio baterako, honatx bi adibide: “Laurogei urte gainean ditut” (Txirrita) // “...makina bat urte / pasa dizkizute...”)(Bilintx, *Zaldi baten bizitza*).

		(Kategoria gramatikala)
<mendian zehar>	[txis.tu.la.ri.a.re.kin]	postposizio-sintagma
<zuri buruz>	[men.di.an.ze.(h)ar (ibili)]	postposizio-sintagma
<Azpeiti aldean>	[zu.ri.bu.ruz ((h)itz egin)]	postposizio-sintagma
<Azpeiti aldean>	[az.pei.ti.al.de.an]	postposizio-sintagma
<andereñoa ere>	[an.de.re.ño.a.e.re]	X + <i>ere</i> *
<(asko) omen daki>	[(asko) o.men.da.ki]	partik. modala + a. trinkoa
<(horretan) ote dabil?>	[(h)orretan) o.te.da.bil?]	partik. modala + a. trinkoa
<Txistularia da.>	[txis.tu.la.ri.a.da]	lotura-perpaua
<Txistularia dator.>	[txis.tu.la.ri.a.da.tor]	perpaua (aditz trinkoa)
<Askok zekien.>	[as.ko.ze.ki.en]	perpaua (aditz trinkoa)
<etorri ezean...>	[e.to.ri.e.ze.an]	aditza + menderagailua
<ekarri arte...>	[e.ka.ri.ar.te]	aditza + menderagailua
<Ikasita ere...>	[i.ka.si.ta.e.re]	aditza + menderagailua
<Esan bezala...>	[e.san.be.za.la]	aditza + menderagailua
<...asmatzen du eta.>	[as.ma.tzen.du.eta]	aditza + menderagailua

\*Ikus 2.1.2.2. atalean adierazten diren beste zenbait elementu ere (*gehienez, bakarrik...*).

Aditz perifrastikoa denean, aditz laguntzaileak taldea osatzen du nagusiarekin batera<sup>60</sup>; eta berdin bestelako perifrasi-egituren kasuan ere:

<utziko dizut>	[u.tzi.ko.di.zut]
<apur dezaket>	[a.pur.de.za.ket]
<afaltzen ari dira>	[a.fal.tzen.a.ri.di.ra]
<motelduz doa>	[mo.tel.duz.do.a]
<etortzekotan dira>	[e.tor.tze.ko.tan.di.ra]
<nekatzen hasita nago>	[ne.ka.tzen.(h)a.si.ta.na.go]

<sup>60</sup>Nolanahi ere, azentu-unitatea luzea denean, ez da harritzekoa bi unitatera jotzea: <andereñoari dakarzikot> [an.de.re.ño.a.ri] / [da.karz.ki.ot]; <egunero daramazkizut> [e.gu.ne.ro] / [da.ra.maz.ki.zut]; <irakurriko zenizkigukete?> [i.ra.ku.ri.ko] / [ze.niz.ki.gu.ke.te?].

-Euskal azentuak, hitz bakar batzuetan<sup>61</sup>, balio kontrastiboa du: bereizkuntza egiteko balio du. Adibidez:

[ba.so.a] (edalontzia) ≠ [ba.ʂo.a] (oihana)<sup>62</sup>  
[txis.tu.a] (musika-tresna) ≠ [txis.tu.a] (ahoko jariakina)  
[(h)as.te.ko] (hasiera emateko) ≠ [as.te.ko] (zazpi eguneko)  
[ar.te.a] (ertia, antzea, tranpa) ≠ [ar.te.a] (zuhaitza)

-Gorago esan bezala, euskara estandarrean, hedadura zabala ari da hartzen molde jakin bat, honela laburbil daitekeena: bigarren silaba (+2) eta azkenekoa (-1) nabarmentzen ditu, azken silabaren azentua ahulagoa delarik. Hau da horren *eskema*: (+2, -1)<sup>63</sup>. Adibidez:

	(zenbait)[i.túrri]
	[i.tú.ri.à]
	[i.tú.ri.kò (ura)]
	[i.tú.ri.e.ta.kò (ura)]
<Iturria da.>	[i.tú.ri.a.dà]
<Iturritik dator.>	[i.tú.ri.tik.da.tòr]
	[(h)a.má.(h)i.rù]
<hamahiru emakume>	[(h)a.má.(h)i.ru-e.ma.ku.mè]

Amaierako azentu hori bigarren mailakoa da, eta horregatik deitu izan zaio bigarrenkaria. Jakina, azkeneko silaban doanez (-1), ez dagokio hitz-erroaren beraren silaba jakin bati, sekuentziaren amaieran egokitzen denari baizik. Adibidez:

[i.tú.ri.à, i.tú.ri.àn, i.tú.ri.e.ta.kò, i.tú.ri.e.ta.rai.no.ko.à...]  
[ba.dá.ra.màt, ba.dá.ra.ma.tè, ba.gé.ne.ki.èn, as.kó-da.kìt, as.kó-da.ki.tè...]

<sup>61</sup>Desberdintze molde hori, egia esan, hizkera batzuen baina ez da; eta desberdintasun horiek, gainera, lausotu egiten dira sarritan esaldiaren doinuan.

<sup>62</sup>Hemengo adibide eta hitz-zerrendetan, mugaturik eman dugu hitza (basoA, txistuA...), berariaz erro hutsa markatu nahi izan denean salbu. Hartara, errazago antzematen da, senez, non dagoen azentua.

<sup>63</sup>Eredu hori garatu duten autoreek (Txillardegia, Hualde) adibideetan bi azentu grafiko erabiltzen dituzte gehienetan, eta hala adierazi ditugu guk ere adibideak puntu honetan (+2, -1). Nolanahi ere, beste adibide guztietan “\_” azpimarra-marka baino ez dugu erabili azentu gainartzailea markatzeko, eta hura ezkerretik bigarren silaban doa (+2).

Ezaugarri horiek gorabehera, beraz, euskal azentua erabat aldentzen da inguruko hizkuntzetatik. Gaztelaniak, adibidez, azkenurreko silaba markatzeko joera du nagusiki; frantsesak, berriz, azkenekoa. Euskara estandarrerakoan, esan bezala, bigarren silaban jartzen da azentu gainartzailea. Adibide batzuk ematearren, ikus, esate baterako, gaztelaniazko eta euskarazko azentuen arteko aldea:

Gaztelaniaz: \_ \_ ' \_ <hospitáles, amnistía, paraíso>

Euskaraz: \_ ' \_ \_ <ospitaleak, amnístia, paradísua>

### 2.3.2.2. *Proposatzen den jarraibidearen (+2) aplikazioa*<sup>64</sup>

**Azentu nagusia, oro har, talde prosodikoaren bigarren silaban doa; salbuespenetan, lehen silaban**<sup>65</sup>.

a) **Oro har, talde prosodikoaren bigarren silaban doa azentua**<sup>66</sup>:

[i.tsa.so.a; txa.ku.rra; i.kas.to.la; zi.ne.ma; ber.tso.la.ri.a; da.ne.l...]  
 [i.tsa.so.tik; txa.ku.rra.ren.tzat; i.kas.to.la.ko; ber.tso.la.ri.a.re.kin; da.ne.li...]  
 [txa.kur-bat], [hai.ze.a.ren.kon.tra], [an.de.re.ño.ei-bu.ruz]  
 [txis.tu.la.ri.a-da], [a.nai.a.re.kin-da.tor]

b) **Salbuespenetan, hitzaren lehen silaban.** Salbuespen horiek hitz-erro markatu jakin batzuei dagozkie; alegia, hitz-erro horiek berezko azentua dute, eta lehen silabako azentu horri eusten zaio, erroari gehituriko silabak gorabehera.

<sup>64</sup>Gogoratu silaba guztiak antzeko indarrez ahoskatuz jokatzeko aukera ere oso gerta litekeela egokia.

<sup>65</sup>José Ignacio Hualde, "Euskal azentuak eta euskara batua", in *Euskera*, 39.

<sup>66</sup>Silababikoetan, dena dela, bada bereizkuntza bat: bokalez amaitzen diren erro askok lehenengo silaban dute azentu gainartzailea [la.ga, u.tzi, (h)ar.tu, ya.so...; ne.ba, a.ma, se.me, ma.l.da, ba.re, di.ru, ho.be, ma.ri...], eta, izenkietan bereziki, paradigma guztian eutsi ohi diote leku horretan [lei.(h)o.a, lei.(h)o.tik...; a.ma.ri, a.ma.re.kin...]; kontsonantez amaitzen direnak, aldiz, arau orokorrera makurtzen dira nagusiki testuinguru guztietan [e.san, e.gon, e.man, e.dan, ja.san...; sa.gar, se.nar, u.mil, az.kar...]; [e.san-dit], [sa.ga.ran.di.a], [u.mil-as.ko (etorri)].

Arau orokorretik aldentzen den lehen silabako azentu molde horretarako joera, hala ere, ez da berdina hizkera guztietan, eta ez dugu desegokitzat jotzen hor ere arau orokorra aplikatzea.

Salbuespen-kasurik aipagarrienak honako hauek dira:

1. Erroa silababakarra denean:

<gai, goiz, gaur, on, lur, Jon, bat, bi...>

Esate baterako:

<on>: [o.ne.na.ri, o.ne.na.ren.tzat...]

<lur>: [lu.rre.ra, lu.rre.ta.ko...]

<Jon>: [yo.ne.kin, yo.nen.gan.dik...]

<lau kilometro> [lau-ki.lo.me.tro]

<etorri...> [(etorri)den, deneko, denagatik...]

<Goizeko zazpiak dira.> [goi.ze.ko-zaz.pi.ak-di.ra]

2. Lehen silaba diptongoa denean:

[au.rre.a, kai.ku.a, ai.ta, lei.(h)oa, neu.rri.a, eus.ka.ra...]

[au.rre.ko.a, au.rre.ko.a.ren, au.rre.ko.a.ren.tzat...]

[yai.o-da, yai.o-nin.tzen]

3. Maileguz hartu den hitzak jatorrian lehen silabako azentua duenean, diptongoa izan zein ez:

[mai.su.a, san.tu.a, ge.la, gor.pu.tza, ka.le.a, mun.du.a, le.ge.a, le.ku.a, (h)a.bi.a, li.tro.a, ber.ba, bo.ta, gu.ra, a.ri.ma, se.ku.la, ain.gu.ra, ma.ki.na, mu.si.ka, bi.de.o.a, ar.te.a, au.to.a (ko.tx.e.a), ban.ku.a<sup>67</sup>...]

[ain.ge.ru-(h)u.ra], [li.tro-bat-es.ne], [mai.su.ak-da.bil.tza]

4. Hitz-erro jakin batzuetan, mailegua izan zein ez:

[to.ki.a, a.tze.a, or.du.an...]

[baz.ka.ri.a<sup>68</sup>, baz.kal.du, (h)iz.ke.ta...]

<sup>67</sup>Nolanahi ere, hitz horiek berak ere, eratorri eta elkartuetan daudenean, arau orokorrera biltzen dira: [mai.su-la.na], [au.to.bi.de.a], [san.tu.te.gi.a], [ge.la.zai.na], [ban.ku-lan.gi.le.a]...

<sup>68</sup>Ez, halere, [??a.fal.du, ??a.fa.ri.a, ??go.sal.du, ??go.sa.ri.a].



5. Galdetzaileetan, erroa silaba bakarrekoa izan zein ez:

[no.re.kin, no.ren.tzat, non.dik, zer.ta.ra.ko, zer.ga.tik, zei.ne.tan,  
zen.ba.te.an...]

[no.re.kin-(t)zo.az?]

[zen.ba.te.an-dau.ka.zu?]

6. [i- eta e- gehi galde-hitz] osaerako izenordainetan:

[i.nor, e.zer...]

[i.no.re.kin, e.zer.ta.ra.ko, i.no.ri, e.ze.rez...]

7. Pertsona-izenetan (ikus 2.3.3.1.)

8. Pertsona-izenordainetan (<ni, hi, gu, zu, zuek>). Oro har, lehen silabako azentuari eusten zaio:

[gu.ri, gu.taz, gu.gatik, gu.gana, gu.ganaino...]

[gu.re bi.de.a]

Hala ere, bigarren silabara lerratzen da azentua, baldin eta hitza genitiboarekin amaitzen ez bada:

[gu.re.a]

[gu.re.tzat, gu.re.kin, gu.re.ga.nai.no...]

### 2.3.2.3. Deikiaren azentua

Kasu berezia da deiki edo bokatiboa. Azkeneko silaba beste guztien gainera nagusitzen da. Izen arruntetan zein izen berezietan gertatzen da hala –izen bakuna nahiz izen-sintagma izan–, bai etxekoetan, bai erdarari hartutakoetan ere:

[se.me, a.la.ba, txi.ki.to, laz.ta.na...]

[pe.ru, a.mai.a an.der...]

[i.kas.le-mai.te.a], [al.ka.te-jau.na]

[pri.mo, ti.o, sar.jen.tu, a.mi.go...]

[pe.dro, mar.kos, a.nas.ta.si...]

Beraz, badaezpadakoak dira ezkerreko azentu moldeak<sup>69</sup>:

[(h)ator (h)ona / \*pe.dro!] / [(h)ator (h)ona, /pedro!]

[ba al zator / \*an.der?] / [ba al zator / ander?]

[zoaz infernura / \*laztana!] / [zoaz infernura / laztana!]

[polit \*(h)ori / zaude isilik] / [polit (h)ori, / zaude isilik.]

[ikusiko duzu / \*seme / nola konponduko diren gauzak] / [ikusiko duzu / seme / nola konponduko diren gauzak]

### 2.3.3. *Bereziki zaindu beharreko aboskera-alorrak*

**Orain arte esandakoaren arabera, azentu-kontuan, bi aukera hauetakoren bat hautatzea da egokia<sup>70</sup>:**

**a) silaba guztiak antzeko indarrez ahoskatzea**

**b) bigarren silaba nabarmentzea (salbuespenak kontuan hartuta)**

Proposatu diren euskal azentuaren ezaugarriak kontuan hartuta, beraz, nahitaez aipatu beharra dago arrotz-itxurako azentu molde batzuen arriskua. Honako alor hauek zaindu behar dira bereziki:

#### 2.3.3.1. *Izen bereziak*

Besteren hizkuntza-ohiturak eta -arauak nagusi izan direlako gurean –eskola-sistemaren bidez edota soldadutzaren bidez, esaterako–, eta, orobat, izen asko eta asko ia beti erdal testuinguruetan bakarrik (hedabideetan bereziki) erabili izan direlako –Teatro [*Arriága*], Estadio de [*Anoéta*], Sociedad [*Gaztelubíde*]...–, nabarmena da euskal azentu jatorraren galera izen berezietan (deituretan eta onomastikan, oro har), dela izen-zerrendak irakurtzean, dela testu baten barruan doanean<sup>71</sup>.

<sup>69</sup>Deikiaren azentua baino ez da markatzen adibideetan.

<sup>70</sup>Nolanahi ere, grafikoki, bigarren aukeraren moldekoak dira emandako adibideak.

<sup>71</sup>Ohartzekoa da, hala ere, Araban, hango herritar erdaldunen ahotan, zein nabarmen eutsi zaion euskal azentuari: [on.da.te.gi], [o.la.ri.zu], [a.za.ze.ta], [be.ri.ka.no]...

–Lau silabatik gorakoak dira benetako arazo. Horietan, gaztelaniak ezarritako moldea –azken-aurreko silaba azentuatzearena, (-2)– saihestera jo behar da. Adibidez:

[\*agirretxe] ez, [a.gi.rre.txe] baizik; eta [a.gi.rre.txe.re.kin, a.gi.rre.txe.ren.gan.dik...]

[\*aranalde] ez, baizik [a.ra.nal.de]

[\*arakistain] ez, baizik [a.ra.kis.tain]

[\*barriola/\*barriola] ez, baizik [ba.ri.o.la]

[\*astelena] (frontoia) ez, baizik [as.te.le.na]

[\*ondarreta] (hondartza) ez, baizik [on.da.rre.ta]

[\*galaretta] ez, baizik [ga.la.rre.ta]

[\*osasuna] ez, baizik [o.sa.su.na]

[\*zumalakarregi] ez, baizik [zu.ma.la.ka.rre.gi]

[\*gorostiaga] ez, baizik [go.ros.ti.a.ga]

[\*idiakex] ez, baizik [i.di.a.kez]

[\*elantxobe] ez, baizik [e.lan.txo.be]

[\*barakaldo] ez, baizik [ba.ra.kal.do]

[\*mendizabal] ez, baizik [men.di.za.bal]

[\*euskal(h)erria] ez, baizik [eus.kal.(h)e.ri.a]

[\*bolikosta] ez, baizik [bo.li.kos.ta]

<Boli Kosta>

[\*lagunaro] ez, baizik [lagunaro]

<Lagun Aro>

Euskal azentu molde hori erdal izenetara ere guztiz natural lerratzen da euskaraz ari garenean<sup>72</sup>:

[\*akilino] / [a.ki.li.no]

[\*(e)strasbourg] / [es.tras.bur.go/s.tras.bourg]

[\*evaristo] / [e.ba.ris.to]

[\*barcelona, \*bartzelona] / [bar.tze.lo.na]

[\*andalucía, \*andaluzia] / [an.da.lu.zi.a]

[\*gutierrez] / [gu.ti.e.rrez]

[\*mariana] / [ma.ri.a.na]

[\*marijose, \*marijosé] / [ma.ri.jo.se]

[\*cocacola] / [co.ca.co.la]

<sup>72</sup>Dena dela, ez ahaztu 1.6. atalean esandakoak.

–Hiru silabakoak ere ondo moldatzen dira jokabide nagusiarekin<sup>73</sup>:  
<Zabala> [za.ba.la]<sup>74</sup> abizena eredu egokia litzateke. Adibideak<sup>75</sup>:

[to.lo.sa, mu.tri.ku, me.ña.ka, ar.bi.zu, zi.bu.ru...; a.gi.rre, al.ber.di, laz.ka.no, nar.bar.te, e.ga.ña...; i.tx.a.so, u.xu.e, yo.se.ba, i.zas.kun, an.do.ni...]

Eta ondorioz:

[to.lo.sa.tik, to.lo.sa.rai.no...]

Leku-izenetatik eratorritako goitzen edo ezizenetan, azentu markatugabeaz gainera, azentu markatua ere erabiltzen da hizkera batzuetan:

[to.lo.xa/to.lo.xa, az.koi.ti/az.koi.ti, xal.di.bi/xal.di.bi, gettari/gettari...]

–Bi silabakoetan, zalantzazkoagoa da araua.

Euskal izenetan, joera bat baino gehiago dago:

•Ponte-izen berrietan, bi joera ikusten dira, izen bakoitzaren arabera: lehena (+1) indartzearena, eta bigarrena (+2) indartzearena:

a) (+1) [mi.kel, i.ker, a.ne, mar.kel, mai.der, lei.re, lo.re, pa.txi, txo.min, deñe, eider, yone...]

b) (+2) [be.ñat, (h)a.ritz, i.bai, u.nai, zu.(h)aitz, ze.lai, (h)o.dei<sup>76</sup>, ai.tor, u.nax, an.tton...]

Eta ondorioz, talde prosodikoan ere berdin:

[mi.ke.len, mi.ke.lekin, mi.ke.len.gan.dik...], [be.ña.ten, be.ña.te.kin...]

[mi.ke.len-al.de], [be.ña.ten-al.de]

---

<sup>73</sup>Aukerakoa da, hiru silabakoetan, hizkeren arabera, bigarren silabako azentu markatugabea [za.ba.la, al.ber.di] zein lehen silaba markatua [za.ba.la, al.ber.di] erabiltzea.

<sup>74</sup>Jakina, 1.3.2. atalean aipatua dugun [\*θ] soinua albo batera utzita betiere.

<sup>75</sup>Badira sistema nagusira errenditzen ez direnak ere: (euskal izenak) [ga.ra.te, o.ri.o...]; (kanpoko izenak) [in.di.a, bar.to.lo...].

<sup>76</sup>Halaxe (+2) egiten dutela dirudi izen arrunten oihartzunetiko gehienek. Erreparatu hauei ere: [ibar, (h)aize, i(h)intz, inar, ipar, ize, kresal, oi(h)an, oinatx, zigor, izar...]

- Euskal onomastika orokorrean, bestelako bi joera daude, izen bakoitzaren arabera: lehena (+1) indartzearena, eta, hizkeren arabera, lehena zein bigarrena indartzearena:

- a) (+1) [go.ñi, bal.da, lan.da, la.sa, la.ka, go.rriz, be.rriz, gor.liz, ber.tiz...]
- b) [i.ma(t)z/i.ma(t)z, or.ti(t)z/or.ti(t)z, gal.dos/gal.dos, za.bal/za.bal, ur.beltz/ur.beltz, ar.zak/ar.zak, al.da(t)z/al.da(t)z, u.rro(t)z/u.rro(t)z...]

Erdal jatorriko ponte-izenetan, indar handia du gaur egun erdarazko azentuak:

[to.mas, [x]e.sus, [x]o.se, i.gor, i.ban, an.dres, mi.gel...]

[to.ma.sen, to.ma.sen.tzat...]

[to.ma.se.kin-da.tor.]

Hala ere, beste jokabidea ere egokia da:

[to.mas, [x]e.sus, [x]o.se, i.gor, i.ban, an.dres, mi.gel...]

[to.ma.sen, to.ma.sen.tzat...]

[to.ma.se.kin-da.tor.]

- Izen berezi silababakarretan, azentu markatua da nagusi ezinbestean:

<Jon> [yon, yo.nek, yo.ne.kin, yo.nen.gan.dik...]

### 2.3.3.2. Hiru silabatik gorako zenbait alor

#### 2.3.3.2.1. Zenbakiak

[?(h)amazazpi] / [(h)a.ma.zaz.pi]

[?(h)emeretzi] / [(h)e.me.re.tzi]

[?(h)ogeitalau] / [(h)o.gei.ta.lau]

[?(h)ogeitamazazpi] / [(h)o.gei.ta.ma.zaz.pi]

[?(h)jirurogeitalau] / [(h)i.ru.ro.gei.ta.lau]

[?e(h)unmil(l)a]/[e(h)unmil(l)a]

### 2.3.3.2.2. Azentu-unitate modura eman beharrekoak<sup>77</sup>

[?eskerrikasko] / [es.ke.rri.kas.ko]  
[?bi(h)arrarte] / [bi.(h)a.rrar.te]  
[?geroarte] / [ge.ro.ar.te]

### 2.3.3.2.3. Erdaratiko maileguak<sup>78</sup>

[\*(in)kon.pa.ti.ble.a] / [kon.pa.ti.ble.a, in.kon.pa.ti.ble.a]  
[\*e.bi.den.te.a] / [e.bi.den.te.a]  
[\*ko.mu.ni.ka.zi.o.a] / [ko.mu.ni.ka.zi.o.a]  
[\*in.pre.si.o.a] / [in.pre.si.o.a]  
[\*in.de.pen.den.tzia] / [in.de.pen.den.tzi.a]<sup>79</sup>

### 2.3.3.3. Izenordainen genitiboak

Desegokia da gaztelaniaren eta frantsesaren moldean ematea, hau da, azentu-unitate batean ematea, ondorengo izenarekin lotuta: [micása], [nuestratiénda]. *Adjektibo posesibo* horiek berez azenturik ez dutelako egiten dute horrela: enklitiko gisa jokatzan dute ondoko hitzaren azentuaren oihartzunera. Euskaraz, aldiz, beregaina da izenlaguna:

[\*nirelana] / [nire lana]<sup>80</sup>  
[\*gureaita] / [gu.re ai.ta]  
[\*berelaguna] / [be.re la.gu.na]  
[\*bereneskola] / [be.ren es.ko.la]  
[\*eurenama] / [eu.ren a.ma]  
[\*zuenlaguna] / [zu.en la.gu.na]  
[\*(h)aienlaguna] / [(h)ai.en la.gu.na]  
[\*gureunibertsitatea] / [gu.re u.ni.ber.tsi.ta.te.a]

<sup>77</sup>Azentu-unitate modura hartzeko hauetan eta zenbakietan, dena dela, enfasia edo beste zenbait baldintza pragmatiko tarteko, gerta liteke natural samar hartzea hemen molde desegokitizat jotakoak.

<sup>78</sup>Erdal azentuaren imitazioz eginikoez ari gara hemen; izan ere, horren antzeko azentua berezkoa dute hizkera batzuek.

<sup>79</sup>Horien moldean jokatzan duten euskal hitz ezagun askoak ere entzuten dira azentu desegokiarekin: [\*ba.ta.su.na], [\*i.kas.to.la]... / [ba.ta.su.na], [i.kas.to.la]...

<sup>80</sup>Gogoratu betiere azenturik nabarmendu gabe eman daitezkeela hitzaren bi silabak.

#### 2.3.3.4. *Ba*<sup>81</sup>

- a) Baldintzazkoa denean, azentugabea izaten da <ba->:

<Gaizki ikusten (baldin) baduzu, zoaz okulistarenera.> [...i.kus.te.n.  
ba.du.zu]

<Berandu etortzen bazara, jai duzu.> [...e.tor.tzen.ba.za.ra]

- b) Aditza baieztekoa denean, azentuduna izaten da, baietza bera nabarmendu nahi denean bederen:

<Banator zuengana.> [ba.na.tor / zu.en.ga.na]

<Badakizue nor naizen.> [ba.da.ki.zu.e / nor.nai.zen]

#### 2.3.3.5. *Aditza*

- a) Oro har, jokabide nagusiari eusten zaio (+2):

[(ondo) da.kiz.kit] / [on.do-da.kiz.kit]

[(etxera) da.ra.ma.gu] / [e.txe.ra-da.ra.ma.gu]

[(hemen) da.karz.ki.zu.et] / [(h)e.men.(txe)-da.karz.ki.zu.et]

- b) Aditz perifrastikoa denean, enklitiko gisa (aditz nagusiari itsatsita, alegia) hartzen du azentua aditz laguntzaileak; ondorioz, azentu-unitate modura ematen dira, hitz bakarra balira bezala (2.3.2.1.). Adibidez:

[e.san-du.te]

[u.tzi.ko-di.zut]

[a.pur(tu)-de.za.ket]

Dena dela, aditzetan ere badira markatuak (+1), hau da, azentua beti lehen silaban daramatenak. Orduan ere, laguntzailea hari lotuta eta haren azentupean doa. Esate baterako:

[(h)il-du.te]

[baz.kal.du-dut]

[eu.tsi-ni.on]

---

<sup>81</sup>EGLU-V (109.-110. or.).

Aginterak ere eragiten du (aditzoin silababakarra denean, itxura denez):

[(h)el.du (horri)] (agintera) ≠ [(h)el.du-ni.on] (indikatioa)

[(h)ar.tu (hau)] (agintera) ≠ [(h)ar.tu-ni.zun] (indikatioa)

[utz-na.za.zu]<sup>82</sup>

Aditzoina silababakarra izateak badu eraginik zenbait aditz-  
esapidetan ere. Ikus aldea besteekiko:

<has(i)> <hastearekin bat> [(h)as.te.a.re.kin-bat] /

<ekarri> <ekartzearekin bat> [e.kar.tze.a.re.kin-bat]

<utz(i)> <uztekotan da> [uz.te.ko.tan-da] /

<erosi> <erostekotan da> [e.ros.te.ko.tan-da]

<itxi><sup>83</sup> <ixten ari da> [ix.te.na.ri-da] /

<ikasi> <ikasten ari da> [i.kas.te.na.ri.-da]

#### 2.3.3.6. Hitz elkartuak eta haien gisakoak

Elkarketaren ondorioz sortutako hitza hitz bakartzat jo behar da sintaxiaren eta prosodiaren aldetik. Azentu-unitate bakarra osatzen du, luzera gorabehera.

Euskaltzaindiaren arauetara jarraikiz (ikus 25. araua), hitz elkartu batzuk bereiz idaztekoak dira; bestetarik, marratxoak lotuta; eta badira aukeran idaztekoak ere, marratxoak nahiz bereiz.

Ahoskeraren aldetik, bereiz idatziak eragiten dute zalantza; bai beti bereiz idaztekoak direnek, bai aukerakoak direnek. Hori kontuan harturik egin zuen EIMAk bere hautua<sup>84</sup>.

Azentu-unitate modura ahoskatu behar dira honako hauek guztiak, eta ez bi hitz beregain balira bezala:

---

<sup>82</sup>Bigarren silabako <-i> bokalaren (*utzi* > *utz*) galerak silababakar bihurtu du, eta hari atxiki zaio azentua. Bestela, [u.tzi-na.za.zu] molde estandarra (+2) nagusitzen da.

<sup>83</sup>*Itxi* salbuespena da (aditzoinen formaren jokoan ere halatsu da).

<sup>84</sup>J.R. Zubimendi, *Ortotipografia*, EIMA, 2004 (66. or.).



<seme-alabak> [se.me.a.la.bak]

<izen-deiturak> [i.zen.dei.tu.rak]

<arazo(-)iturri> [a.ra.zo.i.tu.ri] / [\*arazo iturri]

<gizarte(-)bizitza> [gi.zar.te.bi.zi.tza] / [\*gizarte bizitza]

<bide(-)urratzaile> [bi.de.u.rra.tzai.l(l)e] / [\*bideurratzaile, \*bide.urratzaile]

<politika(-)molde> [po.li.ti.ka.mol.de] / [\*politik.a.molde]

<ordezkaritza(-)talde> [or.dez.ka.ri.tza.tal.de] / [\*ordezkaritzatalde, \*ordezkaritza.talde]

<aste barruan> [as.te.ba.rru.an] / [\*aste barruan]

<Usurbil aldeko> [u.sur.bil.al.de.ko] / [\*usurbil aldeko]

<herriz herri> [(h)e.rriz.(h)e.ri]<sup>85</sup> / [\* (h)erriz (h)erri]

<aurrez aurre> [au.rrez.au.rre] / [\*aurrez aurre]

Beste batzuetan, hitz-elkartea ez da nahitaez prosodia-unitate gisa ahoskatzen, bi osagaiak beregainak baitira:

<euskal okela> [eus.kal o.ke.la], [eus.kal o.ke.la]

<itsas garraioa> [i.tsas ga.rrai.o.a]

<Eusko Jaurlaritza> [eus.ko jaur.la.ri.tza], [eus.ko jaur.la.ri.tza]

---

85 Azentu-unitate gisa ematen ditugu hemen; enfasia tartean dela, baliteke bestelakorik ere. Adibidez: [(h)e.rriz.(h)e.ri] eta [bo.toz.bo.to].